



“ Bilboko Ikastola ”

# KIRIKIÑO IKASTOLAREN BARNE-ARAUBIDEAREN ERREGELAMENDUA

*(Kirikiño ikastolaren batzar orokorrak 2021eko ekainaren 9an onetsitakoa)*

AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	6
I. TITULUA.— KIRIKIÑO IKASTOLAREN ANTOLAKETA .....	6
1. artikulua.— Kirikiño Ikastolaren funtzionamendu-organoak.....	6
I. KAPITULUA.— GOBERNUKO KIDEA ANITZEKO ORGANOAK.....	7
1. atala.— Batzar orokorra.....	7
2. artikulua.— Batzar orokorraren izaera eta eskumenak.....	7
2. atala.— Artezkaritza-kontseilua .....	7
3. artikulua.— Artezkaritza-kontseiluaren izaera eta eskumenak.....	7
3. atala.— Kontseilu pedagogikoa .....	7
4. artikulua.— Kontseilu pedagogikoaren eskumenak.....	7
5. artikulua.— Kontseilu pedagogikoaren osaera .....	7
6. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko kideen agintaldiaren iraunaldia.....	8
7. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko kideen hautaketa.....	8
8. artikulua.— Kontseilu pedagogikoaren funtzionamendu-araubidea.....	8
9. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko zuzendariaren eskumenak.....	8
10. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko kideen eskumenak.....	9
11. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko idazkariaren eskumenak.....	9
12. artikulua.— Kontseilu pedagogikoaren bilkuren araubidea .....	10
4. atala.— Ikastolaren batzordeak.....	10
13. artikulua.— Xedapen orokorrak.....	10
5. atala.— Irakasleen klaustro orokorra.....	10
14. artikulua.— Irakasleen klaustro orokorraren izaera, osaera eta eskumenak .....	10
15. artikulua.— Irakasleen klaustro orokorraren eta etapetako klaustroen funtzionamendu-araubidea .....	11
16. artikulua.— Ebaluazio-bilerak.....	11
6. atala.— Zuzendaritza-taldea.....	12
17. artikulua.— Zuzendaritza-taldearen osaera.....	12
18. artikulua.— Zuzendaritza-taldearen eginkizunak eta eskudantziak .....	12
II. KAPITULUA.— GOBERNUKO KIDE BAKARREKO ORGANOAK.....	13
1. atala.— Zuzendari nagusia.....	13
19. artikulua.— Zuzendari nagusia .....	13
20. artikulua.— Zuzendari nagusiaren izendapena.....	13
21. artikulua.— Zuzendari nagusiak kargua uztea kentzea eta hura kargutik kentzea.....	13
22. artikulua.— Zuzendari nagusiaren eskumenak.....	13
23. artikulua.— Zuzendari nagusia ordeztea .....	14
2. atala.— Zuzendari pedagogikoa .....	14
24. artikulua.— Zuzendari pedagogikoa .....	14
25. artikulua.— Zuzendari pedagogikoa izendatzea.....	14
26. artikulua.— Zuzendari pedagogikoak kargua uztea kentzea eta hura kargutik kentzea...14	

27. artikulua.— Zuzendari pedagogikoaren eskumenak.....	14
28. artikulua.— Zuzendari pedagogikoa ordeztea.....	14
3. atala.— Etapetako arduradunak .....	14
29. artikulua.— Etapako arduraduna izendatzea.....	14
30. artikulua.— Etapako arduraduna.....	14
31. artikulua.— Etapako arduraduna ordeztea.....	15
32. artikulua.— Etapako arduradunaren kargu-uzteak.....	15
4. atala.— Administrazio-zuzendaritza.....	15
33. artikulua.— Izaera eta izendapena.....	15
34. artikulua.— Administrazio-zuzendariaren eskumenak.....	15
5. atala.— Ikastaldeko eskuordeak .....	15
35. artikulua.— Ikastaldeko eskuordeak.....	15
36. artikulua.— Ikastaldeko eskuordeen eginkizunak.....	16
II. TITULUA.— AUTONOMIA PEDAGOGIKOA.....	16
37. artikulua.— Ikastolaren autonomia pedagogikoa.....	16
38. artikulua.— Ikastolaren hezkuntza-proiektuaren eta curriculum-proiektuaren helburuak.....	16
39. artikulua.— Ikastolaren hezkuntza-proiektua (IHP).....	17
40. artikulua.— Ikastolaren curriculum-proiektua (ICP).....	17
41. artikulua.— Hezkuntza-proiektuaren eta curriculum-proiektuaren izaera loteslea.....	17
42. artikulua.— Ikastolaren urteko kudeaketa-plana (UKP).....	18
43. artikulua.— Ikastolak curriculum-materialak aukeratzea eta erabiltzea.....	18
44. artikulua.— Prestakuntza-jardueretarako, jarduera osagarrietarako eta eskolaz kanpoko jardueretarako xedapen erkideak.....	18
45. artikulua.— Prestakuntza-jarduerak.....	18
46. artikulua.— Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak.....	18
47. artikulua.— Urteko memoria.....	19
III. TITULUA.— ANTOLAKETA DIDAKTIKOA.....	19
I. KAPITULUA.— IRAKASLEAK.....	19
48. artikulua.— Irakasleak irakasle-taldeetan kokatzea.....	19
49. artikulua.— Irakasleen eskubideak.....	19
50. artikulua.— Irakasleen eginbeharrak.....	20
51. artikulua.— Irakasleen diziplina-araubidea.....	21
52. artikulua.— Eskola-taldeak eratzea eta tutoretzak esleitzea.....	21
II. KAPITULUA.— IRAKASLEEN KOORDINAZIO-ORGANOAK.....	21
53. artikulua.— Zikloetako taldeak eta sail didaktikoak.....	21
54. artikulua.— Orientazio-saila.....	21
IV. TITULUA.— IKASLEEN EBALUAZIOA ETA IKASTOLAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA.....	22
55. artikulua.— Ebaluazioaren ezaugarriak.....	22
56. artikulua.— Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren ebaluazioa.....	22

57. artikulua.— Ikastolaren curriculum-proiektuaren ebaluazioa .....	22
58. artikulua.— Ikastolaren hezkuntza-proiektuaren ebaluazioa .....	23
V. TITULUA.— IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK.....	23
I. KAPITULUA.— XEDAPEN OROKORRAK.....	23
59. artikulua.— Xedea.....	23
60. artikulua.— Eskubideak egikaritzeko eta eginbeharrak betetzeko printzipio orokorrak.23	
61. artikulua.— Printzipio orokorrak ikasleek euren eginbeharrak ez betetzean izandako portaerak zuzentzeko. ....	24
62. artikulua.— Titulu honek tipifikatu gabeko portaerei neurri zuzentzaileak aplikatzeko debekua.....	24
63. artikulua.— Elkarbizitza-planak ikastolaren barruko bizitza arautzean.....	24
II. KAPITULUA.— IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK.....	24
1. atala.— Ikasleen eskubideak.....	24
64. artikulua.— Hezkuntza integrala eta kalitatekoa izateko eskubidea.....	24
65. artikulua.— Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko. ....	25
66. artikulua.— Ikasle adingabeek duten eskubidea ikastolak haiek babes ditzan.....	26
67. artikulua.— Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea....	27
68. artikulua.— Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.....	28
69. artikulua.— Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonalerako eskubidea. ....	28
70. artikulua.— Kontzientzia-askatasunerako eskubidea. ....	29
71. artikulua.— Ikastolan batzartzeko eskubidea. ....	29
72. artikulua.— Ikastolako adierazpen-askatasunerako eskubidea. ....	29
73. artikulua.— Ikasleek elkartzeko duten eskubidea. ....	30
74. artikulua.— Parte hartzeko eskubidea. ....	30
75. artikulua.— Informaziorako eskubidea. ....	31
76. artikulua.— Ikasleek grebarako duten eskubidea.....	31
77. artikulua.— Aukera-berdintasunerako eskubidea. ....	32
78. artikulua.— Gizarte-babeserako eskubidea.....	32
79. artikulua.— Ikastolan ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.....	33
2. atala.— Ikasleen eginbeharrak .....	33
80. artikulua.— Printzipio orokorrak. ....	33
81. artikulua.— Ikasleen eskola-eginbeharrak.....	33
82. artikulua.— Ikasteko eginbearra.....	34
83. artikulua.— Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko eginbearra. ....	34
84. artikulua.— Bertaratzeko eginbearra. ....	34
85. artikulua.— Elkarbizitza errazteko eginbearra. ....	34
86. artikulua.— Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko eginbearra. ....	34
87. artikulua.— Eskola-arauak errespetatzeko eginbearra. ....	35
88. artikulua.— Instalazioak errespetatzeko eginbearra.....	35
89. artikulua.— Klasera huts egitearen justifikazioa.....	35
VI. TITULUA.— GURASOEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK.....	36

90. artikulua.— Gurasoen eskubideak.....	36
91. artikulua.— Gurasoen eginbeharrak.....	36
VII. TITULUA.— ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK.....	37
92. artikulua.— Administrazio eta zerbitzuetako langileen eskubideak.....	37
93. artikulua.— Administrazio eta zerbitzuetako langileen eginbeharrak.....	38
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	38
XEDAPEN IRAGANKORRA .....	38
AZKEN XEDAPENA.....	39

## HITZAURREA

Kooperatibisten batzar orokorra da ikastolaren funtzionamenduaren azken arduraduna, bere autonomiaren eremuan. Barne-araubidearen erregelamendu honek Kirikiño Ikastola irakaskuntza-kooperatibaren estatutuetan azaltzen ez diren alderdiak garatzen ditu, betiere estatutuotan ezarritakoaren arabera.

Hezkuntza-erkidegoa osatzen dute ikasleen gurasoek, eskola-adineko seme-alabarik gabeko bazkideek, ikasleek, irakasleek eta irakasle ez diren kooperatibako langileek. Hezkuntza-erkidego horretako kideek ikastolaren hezkuntza-proiektuaren printzipioak eta ildo nagusiak bereganatzen dituzte, edo, gutxienez, errespetatzen dituzte, ikasleen kasuan; izan ere, proiektu horrek inspiratzen du Kirikiño Ikastolak eskainitako hezkuntza-ekintza.

## I. TITULUA

### KIRIKIÑO IKASTOLAREN ANTOLAKETA

#### ***1. artikulua.— Kirikiño Ikastolaren funtzionamendu-organoak.***

Kirikiño Ikastolak honako organo hauek izango ditu:

1. Kide anitzekoak:
  - a) Batzar orokorra.
  - b) Artezkaritza-kontseilua.
  - c) Kontseilu pedagogikoa.
  - d) Zuzendaritza-taldea.
  - e) Irakasleen klaustro orokorra.
  - f) Artezkaritza-kontseiluak, zuzendaritza-taldeak proposatuta, unean-unean komenigarritzat jotzen dituenak, bai eta legez nahitaezkotzat jotzen direnak ere.
2. Kide bakarrekoak:
  - a) Zuzendari nagusia.
  - b) Zuzendari pedagogikoa.
  - c) Administrazioko zuzendaria.
  - d) Etapako arduraduna.
  - e) Ikastaldeko eskuordea.
  - f) Artezkaritza-kontseiluak, zuzendaritza-taldeak proposatuta, unean-unean komenigarritzat jotzen dituenak, bai eta legez nahitaezkotzat jotzen direnak ere.

## I. KAPITULUA GOBERNUKO KIDEA ANITZEKO ORGANOAK

### 1. ATALA BATZAR OROKORRA

#### **2. artikulua.— Batzar orokorraren izaera eta eskumenak.**

Kirikiño Ikastola, Kooperatiba Elkartearen sozietate-estatutueta 23.-28. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

### 2. ATALA ARTEZKARITZA-KONTSEILUA

#### **3. artikulua.— Artezkaritza-kontseiluaren izaera eta eskumenak.**

Kirikiño Ikastola, Kooperatiba Elkartearen sozietate-estatutueta 29.-33. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

### 3. ATALA KONTSEILU PEDAGOGIKOA

#### **4. artikulua.— Kontseilu pedagogikoaren eskumenak.**

1. Kontseilu pedagogikoa arlo pedagogikoa bultzatu eta kontrolatzen duen organoa da, ikastolaren eguneroko martxaren jarraipena egiten du, eta artezkaritza-kontseiluari bidezko proposamenak igortzen dizkio beronek erabakiak har ditzan.

2. Kontseilu pedagogikoak, izaera hori duelarik, eskumen hauek izango ditu:

- a) Ikastolaren hezkuntza-proiektua (IHP) proposatzea, artezkaritza-kontseiluak hura onets dezan.
- b) Ikastolako instalazioak eta ekipoa berritzeko proposamenak egitea, artezkaritza-kontseiluak horiek onets ditzan, bai eta instalazio eta ekipu horien kontserbazioa zaintzea ere.
- c) Beste zentro batzuekin lankidetzaharremanak proposatzea, kultura- eta hezkuntza-helburuetarako.
- d) Eskola-egutegia onestea.
- e) Ikasleak onartzeko prozesuan parte hartzea, ikasleak onartzeko arauak betetzen direla bermatuz.
- f) Ikastolako elkarbizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, eta norberaren, familiaren eta gizartearen eremu guztietan gatazkak modu baketsuan konpontzea bultzatuko duten neurriak eta ekimenak proposatzea.
- g) Artezkaritza-kontseiluak eta unean-unean indarrean dagoen legeriak agintzen dizkioten gainerako eginkizunak.

#### **5. artikulua.— Kontseilu pedagogikoaren osaera.**

1. Honako hauek izango dira kontseilu pedagogikoko kideak:

- 1.1. Zuzendari pedagogikoa, kontseiluburua izango dena.
- 1.2. Ikastolaren titularraren hiru ordezkari.
- 1.3. Irakasleen lau ordezkari.

- 1.4. Ikasleen guraso kooperatibisten lau ordezkari.
  - 1.5. Ikasleen ordezkari bi, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bigarren ziklotik hasita.
  - 1.6. Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
  - 1.7. Etapetako arduradunak. Horiek hitz egin ahal izango dute, baina ezin izango dute botorik eman. Organo horretako buruak izendatuta, arduradun horietako batek kontseilu pedagogikoko idazkari gisa jardungo du.
2. Euren karguagatik berezko kide diren kontseilu pedagogikoko kideak ordeztu ahal izango dira kontseilu pedagogikoan parte hartzea dakarren karguan jarduteko bete behar diren baldintza beretan. Hautetsiak ordeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da kideok kontseilu pedagogikoko kide izateari uko egitea edo izaera hori galtzea, eta hautatutako ordezkoen zerrendan agertzen den lehenengo hautagaia sartuko da kontseilu pedagogikoan.
3. Kide bakarrek gainerako organoak kontseilu pedagogikoaren eztabaidetara joan ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, baldin eta haiei deialdia egiten bazaie euren eskumeneko gaietarako buruzko informazioa emateko.

#### **6. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko kideen agintaldiaren iraunaldia.**

Kontseilu pedagogikoko kideak lau urteko aldirako hautatuko dira.

#### **7. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko kideen hautaketa.**

Kooperatibistak, gurasoak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta ikasleak kontseilu pedagogikorako hautatzerakoan, hautaketa hori administrazio-prozedura egokiaren bidez hasi eta jakinaraziko da; eta hauteskunde-prozesuaren publikotasuna eta objektibotasuna bermatu beharko dira, bai eta hezkuntza-erkidegoko kideen botoaren izaera pertsonala, zuzenekoa, berdina eta sekretua ere.

#### **8. artikulua.— Kontseilu pedagogikoaren funtzionamendu-araubidea.**

1. Kontseilu pedagogikoaren bilerak kide guztiak edo, gutxienez, gehienak bertaratzeko aukera ematen duen egunean eta ordutegian egingo dira. Bilerak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke.

Ohiko bileretan, zuzendari pedagogikoak zitazio-deialdi egokia bidaliko die kontseilu pedagogikoko kideei, hiru egun lehenago, betiere gai-zerrenda, tokia, data eta ordua adierazita, eta, beharrezkoa denean, onetsi aurretik eztabaidatuko den dokumentazioa.

Ezohiko deialdiak egiten badira, zuzendari pedagogikoak aginduzko deialdia bidaliko du, hogeita lau ordu lehenago. Ezohiko bilkura Hezkuntza Administrazioak agintzen duenean izan ezik, presa larriko arrazoiengatik soilik eman ahal izango zaie ezohiko izaera kontseilu pedagogikoaren bilere, eta gai-zerrendan presa hori eragiten duten gaiak bakarrik sartuko dira. Presa hori kontseilu pedagogikoak berronetsi beharko du gehiengo soilez.

2. Kontseilu pedagogikoa ohiko bilkuran batzartuko da ikasturte bakoitzaren hasieran eta amaieran.

3. Kontseilu pedagogikoak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, salbu eta Hezkuntza Administrazioaren xedapen orokorren batek bestelako gehiengoak eskatzen dituzenean.

4. Aurreko apartatuan adierazitako ondorioetarako, honako hauek dira “gehiengo soila” eta “gehiengo osoa”:

Gehiengo soila: bozketa egiteko unean dauden organoko kideen erdia gehi bat, gutxienez.

Gehiengo osoa: kontseilu pedagogikoa *de iure* osatzen duten kide guztien erdia gehi bat, gutxienez.

#### **9. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko zuzendariaren eskumenak.**

1. Honako hauek dagozkio kontseilu pedagogikoko zuzendariari:

- a) Organoaren ordezkaria izatea.



- b) Ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdia egitea, eta gai-zerrenda finkatzea, betiere gainerako kideek behar besteko aurrerapenarekin egindako eskaerak jasoz, hala badagokio.
- c) Bilkuretako buru izatea, eztabaidak moderatzea, eta eztabaida horiek etetea baldin eta horretarako justifikatutako arrazoiak badaude.
- d) Bere botoaz berdinketak ebaztea, betiere hartu beharreko erabakiak hartzeko.
- e) Legeak betetzen direla ziurtatzea.
- f) Organoaren erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onestea.
- g) Ikastolako etapetako arduradunen artean kontseilu pedagogikoko idazkaria izendatzea.

2. Kargua hutsik badago, edo zuzendaria kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, kontseilu pedagogikoko buruaren ordezkari etapetako arduradunetako bat jarriko da, zuzendari pedagogikoak izendatua; halakorik ez badago, berriz, kontseilu pedagogikoko kide den eta ikastolan antzinasun handiena duen irakaslea jarriko da.

### ***10. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko kideen eskumenak.***

1. Honako hauek dagozkie kontseilu pedagogikoko kideei:

- a) Organoaren buruari egiten zaizkion deialdien jakinarazpena harengandik jasotzea, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere deialdiei dagokien gai-zerrendarekin eta, beharrezkoa bada, eztabaidaren arrazoi den dokumentazioarekin batera.
- b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.
- c) Botoa emateko eskubidea egikaritzea, zeina, edozelan ere, pertsonala eta besterenezina izango baita, boto partikularra ematea, eta botoaren esanahia eta arrazoiak adieraztea.
- d) Eskeak eta galderak egitea.
- e) Esleitutako eginkizunak betetzeko behar den informazioa lortzea.
- f) Kontseilu pedagogikoko buruari proposatzea deialdien gai-zerrendan gaiak sar daitezela. Eskaera hori gutxienez kontseilu pedagogikoko kideen heren batek egiten badu, gai hori nahitaez sartuko da deialdiaren gai-zerrendan. Proposamena kopuru txikiago batek bermatzen badu, kontseilu pedagogikoko buruak erabakiko du gai hori gai-zerrendan sartuko den edo ez.

2. Kontseilu pedagogikoko kideek ezin izango dizkiote euren buruari esleitu kontseilu pedagogikoki aitortutako ordezkari-eginkizunak, non eta ez zaien berriaz eman arau baten bidez edo organoak berak kasu bakoitzerako baliozkotasunez hartutako erabaki baten bidez.

### ***11. artikulua.— Kontseilu pedagogikoko idazkariaren eskumenak.***

1. Honako hauek dagozkie kontseilu pedagogikoko idazkariari:

- a) Bileretara joatea, hitz egiteko eskubidearekin, baina botorik gabe, irakasleen ordezkari izateko kide hautatua izan ez denean.
- b) Kideek organoarekin dituzten komunikazio-egintzak jasotzea, eta, beraz, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo ezagutu behar dituzten bestelako idazkiak jasotzea.
- c) Gaiak prestatzea eurok bideratzeko, eta bilkuren aktak idaztea.
- d) Kontsultei, irizpenei eta organoak hartutako erabakiei buruzko ziurtagiriak egitea, ondoren kontseilu pedagogikoko buruak ikus-onets ditzan.

2. Kargua hutsik badago, edo idazkaria kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, idazkariaren ordezkari etapako beste arduradun bat jarriko da, kasuaren arabera, eta, halakorik ez badago, berriz, kontseilu pedagogikoko irakasle bat jarriko da, organoaren buruak izendatuta.

**12. artikulua.— Kontseilu pedagogikoaren bilkuren araubidea.**

1. Bilkurak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartze aldera, kontseilu pedagogikoa balio osoz eratzeko, beharrezkoa izango da kontseiluburua eta idazkaria bertan egotea, edo bestela, haiek legez ordeztan dituztenak, eta, gainera, kontseilu pedagogikoa osatzen duten kide guztien erdiak gutxienez egotea; edozelan ere, erabakiak hartzeko orduan, erregelamendu honen 8. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan adierazitakoa bete beharko da.

2. Ezin izango da eztabaidatu ez erabaki gai-zerrendan ez dagoen gairik, salbu eta kide anitzeko organoko kide guztiak bertan badaude eta bertaratutako guztiak botoa ematen badute gaia presakoa dela adierazteko.

3. Kontseilu pedagogikoak egiten duen bilkura bakoitzaren akta jasoko du idazkariak edo haren ordeztan dagoen kideak edo eginkizun hori betetzen duen kideak. Akta horretan, nahitaez, honako hauek zehaztuko dira: nortzuk diren bertaratutakoak, zein den bileraren gai-zerrenda, bilera non eta noiz egin den, eztabaiden puntu nagusiak eta hartutako erabakien edukia.

Aktan, organoko kideek eskatuta, honako hauek agertuko dira: hartutako erabakiaren aurkako botoa, hori justifikatzen duten arrazoiak edo erabakiaren aldeko botoaren esanahia. Era berean, edozein kidek eskubidea du bere esku-hartzearen edo proposamenaren transkripzio osoa eskatzeko, baldin eta, ekitaldian bertan edo kontseilu pedagogikoko buruak adierazitako epean, bere esku-hartzearekin azkenean bat datorren testua aurkezten badu; hala jasoko da aktan edo horren kopia erantsiko zaio aktari.

Gehiengoaren erabakiarekin bat ez datozen kideek boto partikularra eman ahal izango dute idatziz berrogeita zortzi orduko epean, zeina erantsiko baitzaio onartutako testuari.

Organoko kideek aurkako botoa ematen badute eta euren boto partikularra idatziz adierazten badute, salbuetsita geratuko dira erabakietatik erator daitekeen erantzukizunetik.

Aktak bilkuran bertan edo hurrengoan onetsiko dira; hala ere, idazkariak ziurtagiria egin ahal izango du hartutako erabaki espezifikoei buruz, hargatik eragotzi gabe akta geroago onestea. Hartutako erabakien ziurtagirietan, baldin eta horiek egiten badira akta onetsi aurretik, berriaz jasoko da inguruabar hori.

Kontseilu pedagogikoaren deialdi-bilerara bertaratutakoren batek hala eskatzen duenean, bozketa egiteko, banakako boto-txartela emango da, eta, ondoren, kontseilu pedagogikoko buruak eta idazkariak botoak zenbatuko dituzte, eta gertakari horiek guztiek aktan agertu behar dute.

4. Kontseilu pedagogikoak hezkuntza-erkidegoari jakinaraziko dizkio hari dagozkion erabaki espezifikoak.

#### 4. ATALA

#### IKASTOLAREN BATZORDEAK

**13. artikulua.— Xedapen orokorrak.**

1. Ikastolaren funtzionamendu ona bermatzeko, artezkaritza-kontseiluak egokitzen jotzen dituen batzordeak sortuko ditu, bai eta legez aurreikusita daudenak ere.

2. Artezkaritza-kontseiluak unean-unean sortzen diren batzordeen berri emango dio ikastolako hezkuntza-erkidegoari. Komunikazio hori ikastolan dauden komunikazio-bideen bidez egingo da.

#### 5. ATALA

#### IRAKASLEEN KLAUSTRO OROKORRA

**14. artikulua.— Irakasleen klaustro orokorraren izaera, osaera eta eskumenak.**

1. Irakasleen klaustro orokorra irakasleek ikastolan parte hartzeko duten organoa da; ikastolan irakasten duten irakasle guztiek osatuko dute, eta buru izango da zuzendari pedagogikoa edo etapako

zuzendaria edo eskuorde bat, zeinak etapako arduradun bat izendatuko baitu irakasleen klaustro orokorreko idazkaritzarako.

2. Ikastolaren dimentsioak eta funtzionamendu-dinamika kontuan hartuta, etapako klaustroak egin ahal izango dira, klaustroburuak erabakita, irakasgaiek hartara behartzen dutenean; etapako klaustroaren eginkizunak eta irakasleen klaustro orokorraren antzekoak dira.

3. Honako hauek dira irakasleen klaustro orokorraren eginkizunak:

- a) Ikastolaren curriculum-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa egitea; kontseilu pedagogikoak erabakiko du proiektu eta programa horiek ikastolaren hezkuntza-proiektuan jasotako jarraibideetara egokitzen diren ala ez, eta, azkenik, artezkaritza-kontseiluari aurkeztuko dizkio horiek guztiok, artezkaritza-kontseiluak onesteko, ezesteko edo aldatzeko.
- b) Irakasleen ebaluazio- eta errehabilitazio-lanari buruzko irizpideak finkatzea eta koordinatzea.
- d) Irakasleen orientazio- eta tutoretza-eginkizunak planifikatu eta zuzentzea.
- e) Ekimenak sustatzea ikastolan garatu beharreko esperimentazio edo ikerketa pedagogikoaren arloan.
- f) Bere funtzionamendu-arauak onestea.
- h) Instalazioen ordena eta garbitasuna zaintzea.
- i) Ikastolaren funtzionamendu orokorra, eskola-errendimenduaren bilakaera eta ikastolak parte hartzen duen barne- eta kanpo-ebaluazioen emaitzak aztertu eta baloratzea, hobekuntza-ekimenak aktibatzea.
- j) Diziplina-gatazken ebazpenaren eta zehapenen ezarpenaren berri izatea, betiere haien garrantziaren arabera, eta zehapen horiek indarrean dagoen araudiarekin bat datozela zaintzea, datu pertsonalen babesari buruzko arauak barne.
- k) Neurriak eta ekimenak proposatzea ikastolako elkarbizitza errazteko.
- l) Hezkuntza Administrazioak edo antolaketa- eta funtzionamendu-arauek esleitzen dizkieten gainerako eginkizunak.

4. Irakasleen klaustro orokorrak, etapetako klaustroek eta kideek nahitaez bete beharko dituzte Kirikiñoaren hezkuntza-proiektuan eta ikastolaren curriculum-proiektuan definitutako printzipioak.

5. Irakasleen klaustro orokorrak hautatuko ditu kontseilu pedagogikoan izango dituen ordezkariak, betiere erregelamendu honen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### ***15. artikulua.— Irakasleen klaustro orokorraren eta etapetako klaustroen funtzionamendu-araubidea.***

1. Etapetako klaustroak hiru hilean behin batzartuko dira ohiko bilkuran, eta, ezohiko bilkuran, zuzendari pedagogikoak edo etapetako arduradunek deialdia egiten badute. Gainera, nahitaezkoa izango da irakasleen klaustro orokorraren edo etapetako klaustroen bilkura bat egitea ikasturtearen hasieran eta beste bat amaieran. Ezohiko bilkurak deitu ahal izango dira, kontseilu pedagogikorako deialdiak egiten diren baldintza berberetan.

2. Irakasleen klaustro orokorraren eta etapetako klaustroen bilkuretara nahitaez joan beharko dute irakasle guztiek, eta, beraz, edozein kideren absentsia jakinarazi beharko zaio zuzendari pedagogikoari edo etapako arduradunari, bilkura hasi baino lehen.

3. Garrantzi berezia duten bilkuren akta egin ahal izango da, eta zuzendari pedagogikoak edo etapetako arduradunek aintzat hartu beharko dute garrantzi hori.

4. Irakasleen klaustro orokorraren eta etapetako klaustroen erabaki guztiek, horiek bozkatu behar direnean, gehiengo soila beharko dute, kide guztien botoa pertsonala eta besterenezina delarik.

### ***16. artikulua.— Ebaluazio-bilerak.***

1. Honako hauek dira ebaluazio-bileren helburuak:

- a) Ikasleen banakako zein taldeko emaitzak aztertzea, arlo eta irakasgai guztietan.
  - b) Kirikiñoiko ikasleen ikaskuntza-prozesuaren jarraipen eraginkorra egitea.
  - c) Aurreko bileretan hartutako neurrien eraginkortasuna aztertzea.
  - d) Ikasleek ikaskuntza-prozesuan dituzten banakako eta taldeko emaitzak hobetzea bilatzen duten neurriak proposatzea.
  - e) Ikasleei eta haien gurasoei edo legezko ordezkariari orientazioa ematea euren seme-alaben eskola-errendimendua hobetzen laguntzeko hartuko diren neurriei buruz.
  - f) Informazioa lortzea IHP, ICP eta arloetako curriculum-proiektuak eguneratzeko edo berrikusteko, eta, oro har, irakaskuntza-jarduera hobetzeko.
  - g) Ikastolako ikasleek lortutako gaitasunei buruzko ziurtagiriak egitea.
2. Helburu horiek lortzeko, ebaluazio-bilerak egitea proposatzen da: ebaluazio jarraituak eta azken ebaluazioak.
- a) Edozelan ere, bermatuko da tutoreak bere taldearen ebaluazio-bilera zuzentzeko behar diren datuak eta informazioak izango dituela, hura egin eta aztertzeko behar adina denborarekin.
  - b) Ebaluazioaren amaierako bileretan tratatutako informazioa akta batean jasoko da, eta tutoreak edo etapako arduradunak bilera bakoitzean izendatutako pertsonak beteko du akta hori.
  - c) Ebaluazioaren helburuak eta unean-unean indarrean dauden lege-eskakizunak betetzen direla bermatzeko behar den beste bilera egingo da.
  - d) Ebaluazioetako emaitzak kontseilu pedagogikoak aztertuko ditu, eta kontseilu horrek beharrezkoak diren hobekuntza-proposamenak helarazi ahal izango dizkie zuzendaritza-taldeari, irakasleen klaustro orokorrari eta etapetako klaustroei, betiere irakatsi eta ikasteko prozesua hobetzeko; azkenik, artezkaritza-kontseiluak onetsiko ditu proposamenok, beharrezkoa izanez gero.

## **6. ATALA**

### **ZUZENDARITZA-TALDEA**

#### ***17. artikulua.— Zuzendaritza-taldearen osaera.***

Zuzendari nagusiak, zuzendari pedagogikoak, administrazio-zuzendariak eta etapetako arduradunek osatuko dute zuzendaritza-taldea.

#### ***18. artikulua.— Zuzendaritza-taldearen eginkizunak eta eskudantziak.***

1. Honako hauek dira zuzendaritza-taldearen eginkizunak:

- a) Zuzendari nagusiari laguntza ematea ikastolaren zuzendaritzari eta koordinazioari buruzko irizpideak hartzen, bai eta funtzionamenduari dagokionez garrantzi handiena duten erabakietan ere.
- b) Urteko kudeaketa-planaren proposamena egitea, lehenengo hiru hilabetean, artezkaritza-kontseiluari aurkezteko.
- c) Urteko kudeaketa-planaren exekuzioa koordinatzea eta gainbegiratzea, eta hori betetzen dela jakinaraztea kontseilu pedagogikoari, betiere kontseilu horrek artezkaritza-kontseiluari igor diezaion.
- d) Urteko memoriaren zirriborroa egitea, hori kontseilu pedagogikoak eztabaidatu eta artezkaritza-kontseiluak onetsi dezan.

- e) Artezkaritza-kontseiluari proposatzea lankidetzaharremanak ezartzea beste zentro batzuekin.
- f) Irakasle-taldeak antolatzea eta ikasturte bakoitzaren hasieran erabakitzea zelan atxikiko zaizkien irakasleak euren jarduerari.
- g) Ikastolara heltzen diren deialdi, zirkular, ebazpen eta xedapen guztien berri zehatz-mehatz eta jendaurrean ematea irakasleen klaustro orokorrari eta etapetako klaustroei.
- h) Presako arrazoiengatik edo bestelako arrazoiengatik, kontseilu pedagogikoak edo artezkaritza-kontseiluak ezin badituzte haiei dagozkien erabakiak hartu, orduan zuzendaritza-taldeak behin-behinean hartuko ditu erabaki horiek, eta, ondoren, organo eskudunari jakinaraziko dizkio beronek, on irizten badio, erabakiok baliozkotzeko egiten duen lehenengo bileran, betiere artezkaritza-kontseiluko lehendakariak alde aurretik horien berri izanda.
- i) Ikastolaren funtzionamendua eta programatutako helburuak aldi behin ebaluatzea.
- j) Hezkuntza Administrazioak edo antolaketa- eta funtzionamendu-arauek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

2. Zuzendaritza-taldea, ikasturte bakoitzean, zuzendari nagusiak beharrezkotzat jotzen duen guztietan batzartuko da, bere eginkizunak betetzean oinarrituta.

## **II. KAPITULUA**

### **GOBERNUKO KIDE BAKARREKO ORGANOA**

#### **1. ATALA**

#### **ZUZENDARI NAGUSIA**

##### ***19. artikulua.— Zuzendari nagusia.***

1. Zuzendari nagusia ikastolaren funtzionamenduaren arduraduna da, eta artezkaritza-kontseiluak ematen dituen jarraibideen arabera jardungo du.
2. Zuzendari nagusia ikastolan egiten den edozein bileratara joan ahal izango da, bilera deitzen duen organoaren osaera edozein dela ere.

##### ***20. artikulua.— Zuzendari nagusiaren izendapena.***

Zuzendari nagusia artezkaritza-kontseiluak izendatuko du.

##### ***21. artikulua.— Zuzendari nagusiak kargua uztea kentzea eta hura kargutik kentzea.***

1. Zuzendaritza nagusiak kargua utziko du, berak hala erabakita edo hura hiltzeagatik.
2. Zuzendaritza nagusiak bere erabakiz kargua uzten duenean, berak artezkaritza-kontseiluarekin adostuko du noiz utziko duen kargua.
3. Kargu-uztea heriotzagatik gertatzen denean, artezkaritza-kontseiluak postuaz bitarteko moduan arduratuko den pertsona bat izendatuko du, harik eta kargua betetzen duen pertsona izendatu arte.
4. Zuzendari nagusia edozein unetan ken daiteke kargutik, artezkaritza-kontseiluak hala erabakita.
5. Kasu horretan, artezkaritza-kontseiluak beste pertsona bat proposatu eta izendatuko du zuzendaritza nagusirako, eta pertsona horrek zuzendaritza-taldeko kideak aukeratuko ditu, salbu eta administrazio-zuzendaritza izango duena.

##### ***22. artikulua.— Zuzendari nagusiaren eskumenak.***

Kooperatibaren jarduera pedagogikoaren eta gerentzialaren arduraduna da artezkaritza-kontseiluaren aurrean. Era berean, ikastolaren legezko ordezkaria da, artezkaritza-kontseiluak eskuordetuta, beste erakunde batzuekiko egintza eta kudeaketa guztietan. Haren eginkizunak une oro zehaztuko dira

artezkaritza-kontseiluak uste duenaren arabera, eta hari dagokion eginkizunen eskuliburuan zehaztuko dira.

**23. artikulua.— Zuzendari nagusia ordeztea.**

Aldi baterako absentzietan, dela gaixotasunagatik, dela baimenengatik, dela indarrean dagoen araudiak aitortutako antzeko beste batzuegatik, zuzendari nagusia ordeztu egingo da, zuzendaritza-taldeak proposatuta, artezkaritza-kontseiluak unean horretan hartzen duen erabakiaren arabera.

**2. ATALA**  
**ZUZENDARI PEDAGOGIKOA**

**24. artikulua.— Zuzendari pedagogikoa.**

Zuzendari pedagogikoa ikastolaren funtzionamendu akademikoaren arduraduna da, eta zuzendari nagusiaren mende dago zuzenean.

**25. artikulua.— Zuzendari pedagogikoa izendatzea.**

Zuzendari pedagogikoa artezkaritza-kontseiluak izendatuko du, zuzendari nagusiak proposatuta.

**26. artikulua.— Zuzendari pedagogikoak kargua uztea kentzea eta hura kargutik kentzea.**

1. Zuzendari pedagogikoak kargua utziko du, zuzendari nagusiak kargua uzten duenean.
2. Zuzendari pedagogikoa edozein unetan kendu ahal izango da kargutik, artezkaritza-kontseiluak hala erabakita, zuzendari nagusiak proposamena egin eta gero.
3. Kasu horretan, artezkaritza-kontseiluak beste pertsona bat izendatuko du zuzendaritza pedagogikorako, zuzendari nagusiak proposatuta.

**27. artikulua.— Zuzendari pedagogikoaren eskumenak.**

Ikastolako jarduera pedagogikoaren arduraduna da. Haren eginkizunak une oro zehaztuko dira zuzendari nagusiak uste duenaren arabera, eta hari dagokion eginkizunen eskuliburuan zehaztuko dira.

**28. artikulua.— Zuzendari pedagogikoa ordeztea.**

Aldi baterako absentzietan, dela gaixotasunagatik, dela baimenengatik, dela indarrean dagoen araudiak aitortutako antzeko beste batzuegatik, zuzendari pedagogikoa ordeztu egingo du haren eginkizun guztietan etapako arduradun batek edo zuzendari nagusiak izendatutako pertsonak, harik eta zuzendari pedagogikoa berriz ere bere atzetan hasi arte.

**3. ATALA**  
**ETAPETAKO ARDURADUNAK**

**29. artikulua.— Etapako arduraduna izendatzea.**

Zuzendari nagusiak irakasleen artean etapetako hiru arduradun izendatuko ditu: bat Haur Hezkuntzarako, beste bat Lehen Hezkuntzarako eta beste bat Bigarren Hezkuntzarako.

**30. artikulua.— Etapako arduraduna.**

Etapako arduraduna arduratzen da curriculum-proiektuaren exekuzioa zuzenean koordinatzeaz eta zaintzeaz, eta berari dagokion eginkizunen eskuliburuan zehaztutako eginkizunak dagozkio.

**31. artikulua.— Etapako arduraduna ordezte.**

1. Etapako arduraduna ez badago gaixotasunagatik, baimen ofizialagatik edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik, zuzendari pedagogikoak bere gain hartuko ditu haren eginkizunak.
2. Epe luzeko absentziaren kasuan, zuzendari nagusiak edo, bestela, zuzendari pedagogikoak izendatzen duen pertsonak ordeztu ahal izango du, aldi baterako.

**32. artikulua.— Etapako arduradunaren kargu-uzteak.**

1. Etapako arduradunak bere eginkizunak utziko ditu hura izendatu zuen zuzendari nagusiak bere kargua uzten duenean erregelamendu honetan zehaztutako arrazoietatik edozeinengatik.
2. Aurrekoa gorabehera, bere eginkizunak modu larrian betetzen ez dituenean, edo horretara dakarten beste arrazoi batzuk daudenean, zuzendari nagusiak edo, bestela, zuzendari pedagogikoak etapako arduraduna kargutik kenduko du, eta horren berri emango die artezkaritza-kontseiluari eta kontseilu pedagogikoari. Horrek guztiak artezkaritza-kontseiluaren aktetan eta kontseilu pedagogikoaren aktaliburuan agertu beharko du.
3. Horrela hutsik gelditutako postua beste irakasle batek beteko du, zuzendari nagusiak proposatuta. Izendapen hori artezkaritza-kontseiluari eta kontseilu pedagogikoari jakinaraziko zaie.

#### 4. ATALA

#### ADMINISTRAZIO-ZUZENDARITZA

**33. artikulua.— Izaera eta izendapena.**

Administrazio-zuzendariak du bere ardurapean ikastolaren kudeaketa ekonomikoa. Bere eginkizunak betetzen ditu, zuzenean zuzendari nagusiaren mende dagoelarik. Pertsona hori artezkaritza-kontseiluak izendatzen eta kargutik kentzen du.

**34. artikulua.— Administrazio-zuzendariaren eskumenak.**

Zuzendari nagusiak eskuordetuta beteko ditu bere eginkizunak administrazio-zuzendariak, eta eginkizunok artezkaritza-kontseiluak onetsiko ditu. Eginkizun horiek eginkizunen eskuliburuan zehaztuko dira.

#### 5. ATALA

#### IKASTALDEKO ESKUORDEAK

**35. artikulua.— Ikastaldeko eskuordeak.**

1. Bigarren Hezkuntzako ikastalde bakoitzak, zuzeneko eta isilpeko sufragio bidez, ikasturteko lehenengo hilabetean eta ikasturte osorako, ikastaldearen eskuorde bat aukeratuko du. Era berean, eskuordearen ordezeko bat aukeratuko da, hura ordeztuko duena, hura kanpoan edo gaixorik badago, eta haren eginkizunetan lagunduko dio.
2. Ikastaldeko eskuordeen eta horien ordezkoen hauteskundeak etapako arduradunak antolatu eta deituko ditu, zeinak finkatuko baititu bozketarako arauak, artikuluko honen 3. apartatuan ezarritakoa errespetatuz, eta lankidetzan jardunez taldeetako tutoreekin eta ikasleek kontseilu pedagogikoan dituzten ordezkariekin.
3. Edozelan ere, ikastaldeko ikasleak hautesle eta hautagai izango dira, hautagaitzarik aurkeztu beharrik gabe. Bozketan, ikasle bakoitzak izen bakarra jarri ahal izango du boto-paperean. Boto gehien jasotzen duen ikaslea izango da eskuordea, eta boto kopuruan hurrengoa dena eskuordearen ordezeko. Berdinketa gertatuz gero, berdindutakoaren artean bozkatuko da berritua, eta, berdinketak bere horretan jarraituz gero, ikasle zaharrena aukeratuko da ikastaldeko eskuorde, eta hurrengoa, berriz, eskuordearen ordezeko.

4. Ikastalde hautatzaileko ikasleen gehiengo osoak kargutik kendu ahal izango ditu eskuordeak eta horien ordezkioak, tutoreari txosten arrazoitua bidali ondoren. Kasu horretan, beste hauteskunde batzuetarako deialdia egingo da, hamabost eguneko epean eta aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera. Era berean jokatuko da onartutako dimisioen kasuan.

5. Eskuordeei ezin izango zaie zehapenik ezarri erregelamendu honek agintzen dizkien eginkizunak betetzeagatik.

**36. artikulua.— Ikastaldeko eskuordeen eginkizunak.**

Honako hauek dagozkie ikastaldeko eskuordeei:

- a) Gobernu-organoei eta koordinazio didaktikorako organoei azaltzea haiek ordezkatzeko duten taldearen iradokizunak eta erreklamazioak.
- b) Ikastaldeko ikasleen arteko elkarbizitza sustatzea.
- c) Tutorearekin eta gainerako irakasleekin lankidetzan aritzea haiek ordezkatzeko duten ikastaldearen funtzionamenduari eragiten dioten gaietan.
- d) Irakasleekin eta gobernu-organoekin lankidetzan aritzea, haiek ondo funtziona dezaten.
- e) Materiala eta instalazioak modu egokian erabiltzen direla zaintzea.
- f) Eskuordeen artean, irakasleekin, irakasleen klaustro orokorrarekin, etapetako klaustroekin eta abarrekin egindako iruzkinen berri ematea ordezkaturako ikasleei, bai eta ikasleentzat interesgarria izan daitekeen beste edozein gertakariren berri ematea ere.
- g) Ikasgela ikastolak emandako materialez behar bezala hornituta egoteaz arduratzea.
- h) Gobernu-organoei, euren eskumenen eremuan, agintzen edo eskuordetzen dizkieten gainerako eginkizun guztiak.

## II. TITULUA

### AUTONOMIA PEDAGOGIKOA

**37. artikulua.— Ikastolaren autonomia pedagogikoa.**

1. Ikastolaren autonomia pedagogikoaren egikaritzea hauetan zehaztuko da: alde batetik, hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua onestean, zeinek inspiratu eta arautuko baitituzte jarduera guztiak modu egonkorrean, eta, beste aldetik, urteko programazio orokorrean, zeinak aplikatuko baitizkio ikasturte bakoitzari proiektu horietan dauden zehaztapenak.

2. Irakasle-taldeak, maila guztietan, eta irakasleak ikastolaren hezkuntza- eta curriculum-proiektuei lotuta egongo dira. Horiek guztiak errespetatuz, haiek egokitzat jotzen dituzten erabakiak hartu beharko dituzte eskolako jarduerak egiteko eta programatzeko, bai eta jarduera-programak haiei dagozkien jakintza-arloetan aplikatzeko ere.

Hartzen diren erabakiak klaustroak, kontseilu pedagogikoak eta artezkaritza-kontseiluak berrikusi ahal izango dituzte, betiere bakoitzak bere eskumenen eremuan.

3. Ordu-tegi eta antolaketa pedagogikoa, ikastolaren autonomia pedagogikoaren barruan, ikastolaren curriculum-proiektuan jaso beharko dira.

**38. artikulua.— Ikastolaren hezkuntza-proiektuaren eta curriculum-proiektuaren helburuak.**

Kirikiño Ikastola Kooperatiba Elkartearen sozietate-estatutuetako 2. artikuluan adierazitakoak izango dira.



**39. artikulua.— Ikastolaren hezkuntza-proiektua (IHP).**

1. Ikastolaren hezkuntza-proiektuak hauxe adierazten du: hezkuntza-erkidegoak bere gain hartutako hezkuntza-aukera, zeinak identifikatuko baititu ikastolaren jarduerak dituzten oinarrizko balioak eta lortu behar dituzten helburuak.
2. Hezkuntza-proiektuak kooperatibaren estatutu sozialetatik eratorritako printzipioak jasoko ditu bere edukietan, kooperatibaren xedeari dagozkionez. Gainera, horietan oinarrituta, honako zehaztapen hauek jasoko ditu, gutxienez:
  - a) Aukera etikoari buruzkoak.
  - b) Euskararen hizkuntza-tratamenduari, erabilerari eta tratamenduari buruzkoak.
  - c) Pertsona-ereduari, hezkuntza integralari eta gure ikasleengan garatu nahi ditugun balioei buruzkoak.
  - d) Ildo metodologikoari dagozkionak.
  - e) Partaidetza-ereduari eta antolaketa-ereduari buruzkoak.
3. Ikastolak, bere autonomia pedagogikoa egikaritzuz, hezkuntza-proiektua lortzera bideratutako erabaki egokiak hartuko ditu.

**40. artikulua.— Ikastolaren curriculum-proiektua (ICP).**

1. Ikastolaren curriculum-proiektuak, irakaskuntzaren alderditik, hezkuntza-proiektua garatzen du. Honako zehaztapen hauek izango ditu, gutxienez:
  - a) Ikasleen oraingo eta etorkizuneko beharrianetarako egokiak diren irakaskuntza-helburuak eta -edukiak.
  - b) Irakaskuntza-edukien banaketa.
  - c) Ikastolako irakasleen atazaren iraupena bermatuko duten irizpide pedagogikoak eta didaktikoak zehaztea.
  - d) Metodologia didaktikoaren eta curriculum-materialen aukerak.
  - e) Hezkuntza-beharrizan berezien tratamendua.
  - f) Ebaluazio-irizpideak zehaztea eta osatzea.
2. Curriculum-proiektuaren alderditik, zuzendaritza-taldeari eginkizun hauek dagozkio:
  - a) Curriculum-proiektua eta haren ebaluazio-plana onestea, ebaluazio hori erregulatzen duten arauen arabera, zeinak artezkaritza-kontseiluak berretsiko baititu.
  - b) Ikastolako irakaskuntza-jardunean ICP betetzen dela zaintzea.

**41. artikulua.— Hezkuntza-proiektuaren eta curriculum-proiektuaren izaera loteslea.**

1. Irakasle-taldeak, maila guztietan, eta irakasleak ikastolako hezkuntza- eta curriculum-proiektuei lotuta egongo dira, eta, kide guztiak errespetatuz, haiek egokitzen jotzen dituzten erabakiak hartu ahal izango dituzte eskolako jarduerak egiteko eta programatzeko, bai eta jarduera-programak haiei dagozkien jakintza-arloetan aplikatzeko ere. Hartzen diren erabakiak klaustroak eta kontseilu pedagogikoak berrikusi ahal izango dituzte, betiere bakoitzak bere eskumenen eremuan.
2. Ikastolaren urteko planean sartzen diren irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programek oinarri izan beharko dituzte aurreko bi artikuluetan aipatutako proiektuetako erabakiak. Kontseilu pedagogikoak eta artezkaritza-kontseiluak beti zainduko dute ikastolaren jarduera hezkuntza-proiektuan adierazitako oinarrizko helburuak lortzera bidera daitezela.

**42. artikulua.— Ikastolaren urteko kudeaketa-plana (UKP).**

1. Kudeaketa-plana da ikastolak ikasturte baterako dituen hezkuntza- eta kudeaketa-helburuak jasotzen dituen dokumentua. Dokumentu horrek IHPn eta gogoeta estrategikoko beste dokumentu batzuetan jasotako hezkuntza-asmoak zehazten ditu.
2. Ikastolako zuzendaritza-taldeak egingo du plan hori, gero artezkaritza-kontseiluak onetsi dezan, abendua baino lehen.
3. Hezkuntza-erkidegoari horren berri emango zaio Alexia plataformaren bidez.

**43. artikulua.— Ikastolak curriculum-materialak aukeratzea eta erabiltzea.**

1. Curriculum-materialak hautatzeko, IHP eta ICPren erabakiak izango dira erreferente nagusiak.
2. Horiek aukeratzean, mantentzean eta erabiltzean, zenbait irizpide hartuko dira kontuan, hala nola ikastolari eta familiei eragiten dieten gastua eta haien eraginkortasun pedagogikoa.
3. Etapa bakoitzaren barruan, eta hori posible den neurrian, materialen koherentzia bermatuko da aukera metodologiko jakin batekin.

**44. artikulua.— Prestakuntza-jardueretarako, jarduera osagarrietarako eta eskolaz kanpoko jardueretarako xedapen erkideak.**

1. Prestakuntza-jarduerak, jarduera osagarriek zein eskolaz kanpoko jarduerak koherenteak izan behar dute ikastolaren hezkuntza-proiektuarekin eta curriculum-proiektuarekin.
2. Jarduera horiek planifikatzean, hauek zehaztuko dira: helburuak, arduradunak, parte-hartzaileak, noiz eta non egingo diren eta ikasleek zelan hartuko duten parte.
3. Prestakuntza-jarduerak eta jarduera osagarriak egitea eta onestea zuzendaritza-taldeari dagokio, eta horren berri emango zaie kontseilu pedagogikoari eta, azken buruan, artezkaritza-kontseiluari.
4. Eskolaz kanpoko jarduerak egitea artezkaritza-kontseiluak horretarako agintzen duen batzordeari dagokio, ondoren artezkaritza-kontseiluak onesteko.

**45. artikulua.— Prestakuntza-jarduerak.**

Ikastolaren kudeaketa-planaren zati hau egitea zuzendaritza-taldeari dagokio, eta hura onestea artezkaritza-kontseiluari dagokio.

**46. artikulua.— Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak.**

1. Eskola-orduetan eskolak ematea ez den edozein eskola-jarduera da *osagarri*, curriculumari zuzenean lotuta egiten dena. Ikasleek eta irakasleek nahitaez joan beharko dute jarduera horietara, nahiz jarduerok eskola-esparruaren barruan egin, nahiz hortik kanpo egin.
2. *Eskolaz kanpoko*tzat jotzen dira eskola-ordutegitik kanpo eskola-esparruaren barruan zein kanpoan egiten diren hezkuntza-jarduerak, hezkuntza-helburua izan arren ezarritako eskola-curriculumarekin zuzeneko loturarik ez dutenak. Borondatezkoak izango dira ikasleentzat, kontraprestazio ekonomikoa eskatu ahal izango da, eta ezin izango dute diskriminaziorik eragin. Edozelan ere, irakasleek hala nahi badute hartuko dute parte eskolaz kanpoko jardueretan.
3. Ikastola dagoen herritik kanpo egiten diren jardueretan, ikasleen gurasoek edo legezko ordezkariak baimena beharko dute alde aurretik ikasleek joan parte hartu ahal izateko. Honako hau hartu beharko da kontuan:
  - a) Jarduera osagarriren batek ikastolatik irtetera behartzen badu, ikasleek euren irakasleekin joan beharko dute.
  - b) Irteeraren ondorioz ikasleek gaua etxetik kanpo igaro behar badute, irakasleak edo tutoreak ikaslearekin batera joan beharko du, gaua igarotzera behartuta egon gabe. Irakasleak edo tutoreak gaua igarotzen ez badu, zuzendaritza-taldeak horretarako agintzen duen beste irakasle edo pertsona heldu bat egotea aurreikusitako beharko da.

4. Garraio-zerbitzuak eta eskola-jantokia dira hezkuntza-zerbitzuak. Borondatezkoak izango dira ikasleentzat, kontraprestazio ekonomikoa eskatu ahal izango da, eta ezin izango dute diskriminaziorik eragin.

5. Salbuespen gisa, artezkaritza-kontseiluak baimena eman ahal izango du aurreikusi ezin izan diren jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak egiteko.

**47. artikulua.— Urteko memoria.**

1. Amaitutako ikasturtearen urteko memoria ekainean eta irailean egingo da. Memoria horretan honako hauek islatuko dira, diseinatutako planen azterketatik abiatuta —batez ere, kudeaketa-planaren azterketatik—: plan horien betetze-maila; lortutako eskola-emaizak; ikastolak jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan izandako parte-hartzea; ikastolaren autoebaluazioaren ondorioak, eta, garatutako jardueretan oinarrituta, interesgarritzat jotzen diren beste guztiak. Gainera, jarduera hobetzeko proposamenak egingo dira hurrengo ikasturteko planak eta programak egite aldera.

2. Zuzendaritza-taldearen ardura izango da ikastolaren urteko memoriaren zirriborroa egitea, eta artezkaritza-kontseiluari dagokio hori onestea.

### III. TITULUA

## ANTOLAKETA DIDAKTIKOA

### I. KAPITULUA IRAKASLEAK

**48. artikulua.— Irakasleak irakasle-taldeetan kokatzea.**

1. Zuzendaritza-taldeari dagokio irakasle-taldeak antolatzea eta ikasturte bakoitzaren hasieran irizpideak erabakitzea irakasleak euren jardueretara atxikitzeko.

2. Irakasle-talde berean parte hartzen duten irakasleek irakasle-talde bat osatzen dute, eta ziklo bakoitzean jarraipena izango dute.

3. Irakasle-taldeko kide guztiei dagokie, euren ardurapeko jakintza-arloak edo ikasgaiak programatzeaz, emateaz eta ebaluatzeaz gain, orientazio-eginkizuna betetzea.

4. Irakasleek curriculum egokiaren arabera garatuko dituzte euren irakaskuntza-jardueraren programazioak, etapako curriculum-proiektuaren arabera eta ikasleen ezaugarri espezifikoaren arabera.

5. Maila jakin bateko irakasgai bat zenbait irakaslek ematen dutenean, beharrezkoak diren koordinazio-neurriak hartuko dira emandako irakasgaia eta ebaluazio-probak berdina edo baliokidea direla bermatzeko. Edozelan ere, edukiak, printzipio metodologikoak eta ebaluazio-irizpideak berdina izango dira maila bereko ikasle guztientzat, irakaslea edozein dela ere. Premisa hori curriculum-egokitzapenak dituzten ikasleen kasuan baino ez da aldatuko.

6. Ikastolako maila, ziklo eta etapa guztietan arlo bat edo horren baliokidea irakasten duten irakasleek beharrezko neurriak hartuko dituzte edukiak progresiboak eta ebaluazio-irizpideak ziurtatzeko, bai eta ildo metodologikoa koherentea dela ziurtatzeko ere.

**49. artikulua.— Irakasleen eskubideak.**

Irakasleek eskubide hauek izango dituzte:

1. Irakaskuntza- eta ikerketa-eginkizunak betetzea, ezarritako orientazio, plan eta programen barruan egokienak iruditzen zaizkien metodoak erabiliz.

2. Arauzko bideetatik esku hartzea ikastolaren bizitzari, jarduerari eta diziplinari eragiten dieten gai guztietan.
3. Ikastolako instalazioak, altzariak eta materiala erabiltzea, betiere irakaskuntza-jardueren garapen normala eragozten ez badute eta nork bere tutoreari aldeztu aurretik haiek erabiliko dituela jakinarazten badio.
4. Ikastolako gaiei buruzko informazio egokia eta zehatza jasotzea.
5. Euren burua etengabe hobetzea eta birziklatzea.
6. Ikastolan dauden eta irakasleen eskumenekoak diren kargu guztietarako hautatzaileak eta hautatuak izatea.
7. Ikasturtea atxikitzeko dituzten lehentasunak, esperientziak eta gaitasunak azaltzea.

### **50. artikulua.— Irakasleen eginbeharrak.**

Irakasleek eginbehar hauek izango dituzte::

1. Irakasleen klaustroetara eta bilera pedagogikoetara joatea, bai eta haiek kide diren organoen bileretara joatea ere.
2. Klaustroaren eta irakasle-taldearen bileretara ez joatea justifikatzea bileraren deitzailearen aurrean.
3. Klaustroak zein irakasle-taldeak euren eskumeneko gaietan hartutako erabakiak betetzea.
4. Zikloetan, etapetan, sailetan edo zikloetako taldeetan hartutako erabakiak betetzea, baita zuzendaritza-taldeak emandakoak eta hezkuntza-proiektuan, curriculum-proiektuetan eta ikastolaren urteko kudeaketa-planean ezarritakoak betetzea ere.
5. Ikastolara eta ikasleen sarreretara garaiz joatea nor bere gelan.
6. Une oro euren ardurapean dauden ikasleak zaintzea.
7. Absentzia guztiak etapako arduradunari jakinaraztea, eta ordezko irakasleari dagokion lan-plana uztea, betiere aldeztu aurretik aurreikusita badaude. Baimen guztiak etapako arduradunari eskatu beharko zaizkio.
8. Beste irakasle batzuen absentziak bete beharko dituzte.
9. Agintzen zaien materiala zaintzea.
10. Euren ikasleen dokumentazioa egunean izatea.
11. Gainerako irakasleekin lankidetzan aritzea eta irakasle-taldeekin aktiboki parte hartzea, betiere jardun profesionalean etengabeko hobekuntza bilatuz.
12. Ikasleen nortasunaren prestakuntza integrala eta harmonikoa orientatzea, hezkuntza-proiektuan adierazitako balio eta printzipioetatik abiatuta.
13. Gizalegezko elkarbizitza, sinesmen moral eta erlijiosoak errespetatzea, bai eta ikasleen eta hezkuntza-erkidegoko gainerako kideen duintasun pertsonala ere.
14. Ikasleen ebaluazioa, orientazioa eta tutoretza egitea, ikastolak ezarritako irizpideei jarraituz.
15. Aldian-aldean, ikasleen gurasoei eta legezko ordezkariei haien hezkuntza-prozesuaren berri ematea, bai banaka, bai taldeari dagokionez.
16. Ikastolak ondo funtzionatzeko ezartzen diren xedapen eta arau guztiak betetzea.
17. Bere lanbidearen ondoriozko printzipio etikoak betetzea..
18. Euren burua etengabe hobetzea eta birziklatzea.
19. Diziplina-espedienteen instrukzioan parte hartzea, beharrezko erabakiak hartuz zuzendaritza-taldearekin lankidetzan.

20. Gaixotasun luzeen kasuan, ikasleek irakaskuntza jasotzeko duten eskubidea benetan egikaritzeko ematen diren jarraibideak betetzea.

**51. artikulua.— Irakasleen diziplina-araubidea.**

Ikastolako zuzendari pedagogikoak ohartaraziko du, lehenik eta behin, erregelamendu honetan, eginkizunen eskuliburuan eta indarrean dagoen legerian ezarritako eginbeharrak ez direla betetzen eta arauak urratzen direla, betiere faltaren larritasunaren arabera eta modu pribatuan. Faltek hala eskatzen dutenean, artezkaritza-kontseiluak, zuzendari nagusiari entzun ondoren, erabakiko du zein prozesu beteko den, eta, edozelan ere, eragindako irakasleari entzunaldia bermatuko zaio.

**52. artikulua.— Eskola-taldeak eratzea eta tutoretzak esleitzea.**

1. Ikasleak unitateetan elkartzeko, ICPn unean-unean jasotako irizpideak hartuko dira kontuan. Antolaketa-beharrizanak ahalbidetzen duten neurrian, taldeak ziklo osoan zehar jarraituko duela bermatuko da.

2. Talde bakoitzak tutore bat izango du gutxienez, eta tutore horrek bere ardurapeko taldeko beste irakasle, espezialista eta laguntzaileekin koordinatu beharko du, betiere elkarbizitza eta eskola-aprobetxamendua hobetzeko.

3. Tutorea esleitzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- taldean ematen duen ordu-kopurua,
- erabilgarritasuna,
- tutoreak taldearen jarraipena eta ezagutza izatea,
- jarraitutasuna ikasturtean zehar,
- prestaketa,
- esperientzia metatua eta errelebo-beharrizana,
- ikastolaren barruan, beste eginkizun batzuetan aritzea,
- Inguruabarren arabera kontuan hartu beharrekoak diren beste guztiak.

4. Irakasle tutoreak beteko dituen eginkizunak indarreko araudiak, zuzendari nagusiak, zuzendari pedagogikoak edo etapako arduradunak esleitutakoak izango dira, eta irakasle bakoitzaren eginkizunen eskuliburuan jasoko dira.

## **II. KAPITULUA IRAKASLEEN KOORDINAZIO-ORGANOAK**

**53. artikulua.— Zikloetako taldeak eta sail didaktikoak.**

1. Ikastolako irakasleak taldeka elkartuko dira, euren eskumeneko alderdiei buruz beharrezkoak diren koordinazio- eta erabaki-jarduera guztiak garatzeko, betiere ahal den guztietan adostasunaren formula erabiliz.

2. Talde horiek sortzean, unean-unean indarrean dauden lege-eskakizunak eta ikastolak bere helburuak betetzeko dituen antolaketa-beharrizanak beteko dira.

3. Taldekatzeen modua, osiera eta iraupena taldekatzearen eta hezkuntza-etaparen helburuaren arabekoak izango dira.

4. Talde bakoitzak koordinatzaile bat izango du, egingo diren lanen antolaketaz eta jarraipenez arduratuko dena, eta ikastaldearen eta ikastolako zuzendaritza-taldearen arteko lotura izango da.

**54. artikulua.— Orientazio-saila.**

1. Ikastolak orientazio-sail bat izango du, eta sail horretan egongo dira ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen orientazioaz, detekzioaz, diagnostikoaz eta arretaz arduratuko diren langileak.

2. Beteko diren eginkizunak eginkizunen eskuliburuan jasoko dira.

3. Bileretan parte hartu ahal izango dute, batzordekideez gain, aztertuko den gaiaren arabera unean-unean egokitzen diren pertsona guztiek.

## IV. TITULUA

### IKASLEEN EBALUAZIOA ETA IKASTOLAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA

#### **55. artikulua.— Ebaluazioaren ezaugarriak.**

1. Ikasleen ebaluazio-prozesuak helburu hauek izango ditu ikastolan:

- ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan daukan aurrerapena baloratzea,
- beharrezko informazioa lortzea ikasleari edota haren aitari, amari edo legezko ordezkariari aurrerapenaren gaineko informazioa emateko (ikaslearen adinaren arabera),
- ikastolaren irakaskuntza eta hezkuntza-eskaintza eten barik hobetzea,
- ikasleen errendimendua hobetzea dakarten neurriak hartzea, eta
- ziurtagiriak ematea eta sustapenari buruzko erabakiak hartzea.

2. Ebaluazio-prozesua legezko jarraibideei lotuko zaie, bai faseei, izaerari, printzipioei, erreferenteei, zaintza-neurriei, ikaslearentzako, haren aitarentzako, amarentzako edo legezko ordezkariarentzako informazioari dagokienez, bai sortzen ebaluazio-prozesuak sortzen duen dokumentazioari dagokionez. Gainera, IHPn eta ICPn gai horren gainean jasotako printzipioei lotuko zaie.

3. Une oro bermatuko da arlo edo ikasgai bereko irakaskuntza jasotzen duten ikasleen errendimendu akademikoaren helburu objektiboa, koordinazio eta aukera-berdintasuna izateko eskubidea, baita etapan eta derrigorrezko hezkuntzan zehar aurrera egiteko eskubidea ere.

#### **56. artikulua.— Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren ebaluazioa.**

1. Ebaluazioaren helburua da irakaskuntzako prozesua ikaslearen ezaugarriei eta beharrezkoari egokitzen zaiela egiaztatzea, eta, horren arabera, hezkuntzako jardunean egokiak diren hobekuntzak egitea; hori dela eta, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan parte hartzen duten elementu guztien garapena ebaluatu beharra dago.

2. Zuzendaritza-taldeak, irakasleen klaustroarekin bat etorritik, ebaluazio-prozesua planifikatuko du, ebaluazioan aztertu beharreko uneak eta elementuak zehaztuz, eta ondorioak kontseilu pedagogikoari eta klaustroari helaraziko dizkie hauek jakinaren gainean egon daitezkeen.

3. Irakasle bakoitzak egingo du, lehenik eta behin, ematen duen arloaren edo irakasgaiaren emaitzen azterketa, eta emaitzak hobetzeko hartu beharreko neurriak adieraziko ditu. Azterketa eta proposaturiko neurri zuzentzaileak aktan geratuko dira jasota.

Ondoren, sail didaktiko eta zikloko talde bakoitzak edo egokitzen hartutako irakasleen beste edozein talde-motak egingo ditu arloari edo zikloari dagozkion emaitzak, eta programazioetan hartu beharreko neurri zuzentzaileak planteatuko ditu, emaitzak hobetze aldera. Azterketaren emaitzak aktan geratuko dira jasota.

#### **57. artikulua.— Ikastolaren curriculum-proiektuaren ebaluazioa.**

1. Irakasle-taldeak ebaluatu behar du ikastolaren CP, eta horrela hura eten barik egokitzen dela bermatuko da eraginkortasun handiagoa lortzeko.

2. Zuzendaritza-taldeak eginkizun du ikastolaren curriculum-proiektuaren aldiaren ebaluazioa koordinatzea, eta ebaluazioa egiteko irizpideak definituko ditu eta haren garapena planifikatuko du.

Oinarrizko prozesuan erregistratuko dira denborei, edukiei, informazio-iturrii (barrukoak zein kanpokoak) eta burutu beharreko prozesuari buruzko alderdiak.

3. Berrikuspenaren emaitzak eta aldaketarako proposamenak kontseilu pedagogikoan eta klaustroan aurkeztuko dira haiek jakitun egon daitezten, eta ondoren artezkaritza-kontseiluari igorriko zaizkio beronek onets ditzan.

**58. artikulua.— *Ikastolaren hezkuntza-proiektuaren ebaluazioa.***

1. Ikastolaren IHPa berrikusteko prozesuaren xedea da dokumentu horrek hezkuntzaren eta antolaketaren arloan dituen helburuak Kirikiño ikastola osatzen dugun kideon asmoei eta nahiei egokitzea.

2. Kirikiño ikastolaren IHPa berrikusteko zein eguneratzeko, oinarrizko prozesuaren edukiari lotuko gataizkio une oro.

3. Zuzendaritza-taldeak eginkizun du, artezkaritza-kontseiluak gainbegiratuta, IHParen aldizkako berrikuspena koordinatzea, eta, horretarako, berrikuspena egiteko irizpideak definitu eta haren garapena planifikatuko du.

4. Berrikuspenaren emaitzak eta aldaketarako proposamenak kontseilu pedagogikoan eta artezkaritza-kontseiluan aurkeztuko dira.

5. Berrikuspen-prozesuaren ondorioz egin beharreko aldaketak jendaurrean jarriko dira Alexia plataformaren bitartez, hezkuntza-erkidegoko kide guztiak eta, oro har, gizartea haien jakinaren gainean egon daitezten.

## V. TITULUA

### IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

#### I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

**59. artikulua.— *Xedea.***

Titulu honen xedea ikastolako elkarbizitza-esparrua arautzea da, legeek hezkuntza-jarduerari atxikitzen dizkioten helburuei jarraituz, ikasleek gizarte demokratiko, plural, tolerantante eta berdintasunean oinarrituan elkarrekin bizitzen ikas dezaten, haiei dagozkien eginbeharrak betez, titulu honetan arautzen diren eskubideak egikaritzuz eta hezkuntza-erkidegoko gainerako kideen eskubideak errespetatuz.

**60. artikulua.— *Eskubideak egikaritzeko eta eginbeharrak betetzeko printzipio orokorrak.***

1. Ikasle guztiak eskubide eta eginbehar berberak dituzte. Eta euren adinaren eta egiten dituzten ikasketen mailaren arabera egikaritzeko dituzte eskubide eta eginbehar horiek.

2. Ikasleek euren eskubideak egikaritzeko dituzte, hargatik eragotzi gabe euren eginbeharrak betetzea eta hezkuntza-erkidegoko gainerako kideen eskubideak aintzat hartu eta errespetatzea.

3. Hezkuntza-erkidegoko kide guztiak, ikasleei dagozkienez, titulu honetan bildu diren eskubideak errespetatu behar dituzte. Beste guztien eskubideen errespetua izango da ikasleentzako muga euren eskubideak egikaritzean.

4. Gobernu-organismoek eta irakasleek ikasleen eskubideak egoki egikaritzen direla eta eginbeharrak betetzen direla bermatuko dute, titulu honetan aurreikusitakoari jarraituz.

**61. artikulua.— *Printzipio orokorrak ikasleek euren eginbeharrak ez betetzean izandako portaerak zuzentzeko.***

1. Ikasleen eginbeharrak ez betetzea beti hartuko da, gutxienez, portaera desegokitzat. Ez-betetze horrek hezkuntza-erkidegoko gainerako kideei euren eskubideak egikaritzea eta eginbeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastolako elkarbizitzaren aurkako portaeratzat edo elkarbizitza horri kalte larria eragiten dion portaeratzat hartuko da.

2. Ikasleen eginbeharrak ez betetzeko portaera guztiak lehenbailehen zuzendu beharko dira, zuzendu beharreko portaerarekin lotutako neurrien bitartez.

3. Neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute, batez ere, hala zuzendu behar den portaera egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. Neurri zuzentzaileak hezkuntza-jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko, hala nola gizarte- eta herritartasun-arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak.

4. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioak kontuan izanda ezarriko dira, eta adiskidetzearen eta kalte-ordainaren bidez irtenbidea lortzeari emango zaio lehentasuna, betiere ahal den hezkuntza-eraginkortasunik handiena lortzearren.

**62. artikulua.— *Titulu honek tipifikatu gabeko portaerei neurri zuzentzaileak aplikatzeko debekua.***

1. Ezein ikasleri ez zaio neurri zuzentzailearik aplikatuko titulu honetan ezarritakoaren arabera portaera desegoki gisa, elkarbizitzaren aurkako portaera gisa edo elkarbizitzari kalte larria eragiten dion portaera gisa definituta ez dauden egite edo ez-egiteengatik.

2. Ikasturte bakoitzaren hasieran hezkuntza-erkidego osoak zer portaera zuzenduko diren jakin dezan, zuzendaritza-taldeak, titulu honetan bildutako elkarbizitza-arauak zein barne-araubidearen erregelamenduan dauden elkarbizitza-arauak, ezagutzera eman edo gogoraraziko dizkie irakasleei eta ikasleei eta, azken hauek adingabeak badira, haien guraso edo legezko ordezkari, hartarako komenigarrien deritzon prozeduraren bidez.

**63. artikulua.— *Elkarbizitza-planak ikastolaren barruko bizitza arautzean.***

1. Portaerak zuzentzeko prozedurak ikastolaren praktikan integratu beharko dira hezkuntzako beste bitarteko bat izango balira bezala, eta elkarbizitza-planean jasotzen dira; plan hori hezkuntza-proiektuaren zati gisa onesten da.

2. Elkarbizitza-plan horrek berdinen artean, generoen artean eta kulturen artean elkarbizitzarako funtsezko oinarrizkat hartuko du norberaren eskubideak egikaritzea eta besteen eskubideak errespetatzea, baita irakasleen, ikasleen eta irakasleak ez diren langileen arteko harremanetarako ere. Agiri horretan, gatazkak modu baketsuan ebazteko, adiskidetzeko eta kalte ordaintzeko bitartekotza-prozedurak jaso beharko dira, baita elkarbizitzarako hezkuntza-konpromisoak hartzeko jarraibideak eta elkarbizitza batzordearentzako neurriak ere.

## II. KAPITULUA IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

### 1. ATALA IKASLEEN ESKUBIDEAK

**64. artikulua.— *Hezkuntza integrala eta kalitatekoa izateko eskubidea.***

1. Ikasleek euren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala eta kalitatekoa jasotzeko eskubidea dute.

2. Hezkuntza integral horretan, oinarrizko gaitasunak, zientziaren eta kulturaren arloko edukiak eta lan-ohitura intelektual eta teknikoak hartu ez ezik, garapen harmoniatsua ere bultzatuko da honako



hauei dagokienez: afektibitatea, autonomia pertsonala, autoestimua, besteekiko eta ingurunearekiko harremanak izateko gaitasuna, eta jarduera profesioaletan, intelektualetan nahiz aisiakoetan jarduteko gaikuntza. Prestakuntza horrek barnean hartzen du ikasleek euskal herriko kide gisa euren kultura-nortasuna aurkitzea eta derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gai izatea.

3. Azken batean, prestakuntza integral eta kalitate horrek honako hauek biltzen ditu:

- a) Elkarbizitzaren printzipio demokratikoen barruan, eskubideak eta askatasunak errespetatzeko eta tolerantzia eta askatasuna egikaritzeko prestakuntza.
- b) Laneko ohitura intelektualak eta teknikoak eskuratzea, bai eta ezagutza zientifikoak, teknikoak, humanistikoak, historikoak eta estetikoak ere.
- c) Ikaslearen nortasuna askatasunez garatzea eta hari prestakuntza integrala ematea, elkarbizitza demokratikoa ahalbidetzen duten balioetan eta gure hezkuntza-proiektuan isla duten guztietan oinarrituta.
- d) Ikasleak euskal herriko kide gisa duen kultura-nortasuna ezagutzea, haren historia eta kultura ezagutzuz, eta ikasleak bere ingurune geografiko, sozioekonomiko eta kulturallean sustraitzea sustatuz.
- e) Hizkuntza ofizial bien ezagutza praktikoa, baldintza berdinetan, haien erabilera bultzatuz eta euskararen normalizazioan lagunduz. Era berean, beste hizkuntza batzuen (atzerrikoak) ezagutza eta erabilera sustatuko da ikastolako hizkuntza-proiektuan aurreikusitako mailetan.
- f) Afektibitatearen, autonomia pertsonalaren, autoestimua eta besteekiko harremanetarako gaitasunaren garapen harmonikoa.
- g) Jarduera profesional, intelektual eta ludikoetan jarduteko gaikuntza.
- h) Osasunaren babesa eta gaitasun fisikoaren garapena bermatuko dituen hezkuntza.
- i) Irakaskuntzaren kalitatea hobetzen parte hartzea.
- j) Bakerako, askatasunerako eta herrien arteko elkarlan- eta elkartasun-ideiak sustatzeko prestakuntza.

4. Ikastolaren hezkuntza- eta curriculum-proiektuak helburu horretara bideratuko dira, betiere, legeek hezkuntzari esleitzen dizkioten helburuen barnean. Hain zuzen ere, proiektu horietan 3/2005 Legearen —otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoaren— 24.2 artikuluan adierazitako alderdiak bilduko dira, baita 4/2005 Legearen —otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoaren— 29. artikuluan adierazitakoak ere. Era berean, programazioek eta irakasleen lan guztiek kontuan izango dituzte alderdi horiek, eta irakasleen aginpideak bermatuko duen lan-giroan garatu beharko da, eskola-jardueren barnean nahiz eskolatik kanpokoetan eta osagarrietan, eta irakasle guztien laguntzarekin.

5. Eskola-egunaren barruan lana antolatzeke era, ikasleen adinari eta heldutasunari moldatuko zaie, betiere haien ahalmen guztien garapen osoa ahalbidetzeko. Ondorio horietarako, besteak beste, ikasleen proposamenak eta interesak aintzat hartuaz antolatuko da eskola-eguna. Kontu horren eretxean, ikasleek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte euren ordezkarien bitartez.

### ***65. artikulua.— Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.***

1. Ikasle adingabeek eskubidea dute ikastolaren nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko.
2. Arreta hori zuzenean eskainiko da eskumen-eremuari hala badagokio. Ez badagokio, ostera, organo edo zerbitzu eskumendunari kasua helaraziko zaio. Era berean, adingabearen gurasoei, tutoreari edo, beharrezkoa bada, Fiskaltzari gertakarien berri emango zaie berehala.
3. Ikastolak eta bertako irakasleak, ikasleei behar duten arreta berehala ematea bazter utzi gabe, behartuta daude tratatu txarrak edo haurren babesik gabeko edo arriskuko egoerak jakinaraztera adingabeen babesari buruzko eskumena duten administrazio publikoei, edo, beharrezkoa denean, Fiskaltzari edo agintaritzari judizialari. Esku-hartzeen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko

beharrezkoak diren adina datu eta informazioen berri eman beharko dute, eta aipatutako administrazioei laguntza eman beharko diete egoera horiek saihestu eta konpontzeko; era berean, beti kontuan izan beharko dira adingabearen lehenetsuneko interesak.

4. Era berean, derrigorrezko eskolatzeko adineko ikasleren bat eskolatu gabe dagoela edo ikasleren batek absentismo-maila handia duela antzematen bada, hezkuntza-agintariei eta toki-erakundeei jakinarazi beharko zaie, eskola-absentismoan inplikaturik dauden administrazio eta instituzio guztien arteko lankidetzaren lortzearen. Edozelan ere, behar den zuhurtasunaz jardungo da, eta ikasle adingabearen bizitza pribatua sartzeko saihestuko da beharrezkoa ez bada.

5. Emakumeen eta haurren aurkako indarkeria-zantzurik antzeman badute, irakasleak behartuta egongo dira zantzu horiek zuzendaritza-taldeari jakinaraztera, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 25. artikuluan nahiz Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### ***66. artikulua.— Ikasle adingabeek duten eskubidea ikastolak haien babes ditzen.***

1. Ikasle adingabeek eskubidea dute ikastolak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babes diezazkien.

2. Artezkaritza-kontseiluak, kontseilu pedagogikoak, zuzendaritza-taldeak eta klaustroak behar diren neurriak hartuko dituzte bereziki ikasleen ohorerako, intimitaterako eta irudi propioarako eskubideei inork eraso edo kalte egin ez diezaien, batez ere ikasleak adingabeak badira, eta, horretarako, honela geldituko da araututa zelan erabili behar diren teknologia berriak ikastolaren esparruetan:

a) Ikastolako kide guztien irudi propioarako eskubidea bermatzeko aldera, ezin izango da inolako grabazioerik egin zuzendaritza-taldeak baimenik espresuki eman gabe.

b) Eskolak ematen diren bitartean ezin izango da telefono mugikorrik erabili. DBHko eta Batxilergoko ikasleek patioan eta atsedenaletan bakarrik erabili ahal izango dituzte mugikorrik.

c) Audioa edo bideoa erreproduzitzeko aparatuak edo beste edozein aparatu elektronikoa, eskola-orduetan, itzalita eta gordeta mantenduko dira, irakasleak baimenik eman ezean.

d) Lehen Hezkuntzan, ikastolaren esparruan ezin izango dira erabili audio- edo bideo-erreproduzigarriak edo beste ezein tresna elektronikoa, hala nola mugikorrik, tabletak, kontsolak edo antzekoak, tutoreak baimenik espresuki eman gabe.

e) Debekatuta dago DBHko eta Batxilergoko ikasleek mugikorrik eta beste tresna elektronikoa batzuk erabiltzea Zuzenbuz.

f) Ikastolak gomendatzen diren ikasle guztiei ez ekartzea mugikorrik edo beste ezein aparatu elektronikorik ikastolara. Kalteak edo lapurretak gertatuz gero, ikastola ez da horien erantzule egingo.

g) Autobusean eta beste leku komun batzuetan, entzungailuak gainerako erabiltzaileei enbarazu ez egiteko erabiltzen badira bakarrik entzun ahal izango da musika.

3. Artezkaritza-kontseiluak, kontseilu pedagogikoak eta zuzendaritza-taldeak zainduko dute ikasleen bizitza pribatua, familia, etxean edo postan ikastolako inor arazoerik gabe edo legez kanpo ez dela sartzen, batez ere ikaslea adingabea bada. Familiei, ikasleen bitartez, soilik ikastolako bizimoduari, irakaskuntza/ikaskuntzako jarduerari eta tutoretza-ekintzari buruzko jakinarazpenak, komunikazioak eta dokumentuak emango zaizkie, eta horiek guztiak honako hauek emango dituzte: administrazio-organoei, artezkaritza-kontseiluak, kontseilu pedagogikoak, zuzendaritza-taldeak, irakasleak, tutoreak, eta gurasoen eta ikasleen elkarrekin ordezkariek, baldin eta elkarrekin legez erabiltzen badaude.

4. Artezkaritza-kontseiluak, kontseilu pedagogikoak, zuzendaritza-taldeak, irakasleak nahiz administrazio eta zerbitzuetako langileak euren lanbide-jardueraren bidez ikasleei eta haien familiei buruz eskuratzen dituzten datu pribatu guztiak behar den zuhurtasunaz erabiliko dituzte.

5. Era berean, artezkaritza-kontseiluak, kontseilu pedagogikoak eta zuzendaritza-taldeak eragotziko dute ikasleei buruzko informazioa hedatzea edo haien irudia edo izena erabiltzea komunikabideetan, ikasleen intimitateari, duintasunari, ohoreari, osperei edo interes legitimoek kalterik egin ez diezaieten.

**67. artikulua.— Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.**

1. Ikasleek eskubidea dute euren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezazkieten.

2. Ikasleek, gurasoek eta legezko ordezkariak, ikasleak adingabeak direnean, eskubidea dute ikasturte, eskola-ziklo edo -etapa bakoitzean gaintitu beharreko gutxieneko helburuak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak ezagutzeko. Irizpide horiek ikastolaren curriculum-proiektuaren parte izango dira, eta ikasturtearen hasieran argitaratuko dira; irizpide horiek bat etorriko dira indarrean dauden ikasketa-planekin eta ikastolari aitortutako autonomia egikaritzean hartzen diren aukerekin.

3. Ikasleek, gurasoek eta legezko ordezkariak eskubidea dute: batetik, ikasleen bilakaera akademiko eta pertsonalari buruzko informazioa jasotzeko amaierako eta bitarteko ebaluazio-bilkuren ondoren, eta, bestetik, irakasleei argibideak eskatzeko hala jarduera akademikoetako kalifikazioei buruz, nola ebaluazio-txostenek dituzten balorazioei buruz. Txosten hori konstruktiboa eta orientatzailea izango da, eta ikasleek eginiko aurrerapenak, gaintitu beharreko helburuak eta kasuan kasuko egokitze- eta indartze-neurriak izango dira txostenaren ardatzak; gainera, gurasoentzako eta legezko ordezkarietarako gomendioak ere jaso ditzake. Edozelan ere, legean txostenen aldizkakotasunari eta gutxieneko edukiari buruz ezarritakoa errespetatuko da une oro.

4. Ikasleek edo haien gurasoek edo legezko ordezkariak eskubidea dute, hala eskatuz gero, azken kalifikazioaren gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak ikusteko, behi horiek zuzendu ondotik.

5. Ikasleek eskubidea dute idatzizko probak edo horien fotokopia bat etxera eramateko, behin gurasoek eskatuta, euren seme-alaben ikaskuntza-prozesuaren jarraipena hobeto egiteko.

6. Ikasleek edo haien gurasoek edo legezko ordezkariak eskubidea dute programazioak eta ebaluazio-irizpideak jasotzen dituen sailaren dokumentazioa eskuratzeko, tutoreari eskatu ondoren.

7. Ikasleek edo haien gurasoek edo legezko ordezkariak eskubidea dute erreklamazioak aurkezteko aipaturiko ebaluazioen kalifikazioen kontra. Honako era honetan zehaztuko da prozedura:

1.) Idatzizko erreklamazioa egitea tutoreari, edo erreklamazioaren zergatia den ikasgaia ematen duen irakasleari.

2.) Erreklamazioari jaramonik egiten ez bazaio, edo azalpena erreklamatzailaren gustukoa ez bada, bigarren erreklamazioa aurkeztuko du, zuzendari pedagogikoari bideratua oraingoan.

3.) Azken irtenbide moduan eta, baldin eta aurreko bide biek erreklamatzailari erantzunik eman ezean, erreklamatzaila horrek Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren aurrean izapidetu ahal izango du erreklamazioa.

8. Ohiko eta ezohiko idatzizko probak edo azterketak, ikasleek haiek ikusi ondoren, sail eskuduneari gordailutuko dira, eta bertan gordeko dira hurrengo ikasturtea amaitu arte.

9. Gurasoei eta legezko ordezkariak egindako komunikazioak ebaluazio bakoitzaren amaieran bidaliko diren noten buletinen bidez egingo dira. Gainera, tutoreak bilerak izango ditu familiarekin.

a) Haur Hezkuntzan, tutoreak gutxienez bi elkarrizketa pertsonaleko deialdia egingo du aitarekin, amarekin edo legezko ordezkariarekin.

b) Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, tutoreak gutxienez elkarrizketa pertsonal baterako deialdia egingo du aitarekin, amarekin edo legezko ordezkariarekin.

c) Edonola ere, aitak, amak edo legezko ordezkariak tutoreekin hitz egitea eskatuko du, egoki deritzotenean.

d) Edonola ere, tutoreak elkarriketa baterako deialdia egin ahal izango du, egokitzat jotzen duenean.

**68. artikulua.— Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.**

1. Ikasleek hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da, eta sexuan edo bestelako inguruabarren batean oinarritutakoak baztertu egingo dira.

2. Eskubide horrek honako hauek hartzen ditu barnean:

a) Ikasleei, ikastolan sartzen direnetik, hezkuntza-orientazioko zerbitzuak ematea, aukera egokiak eginez, ikasle bakoitzaren trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetarako ikasketa-planik egokiena aukeratzeko, batez ere maila edo ziklo bakoitzaren amaieran.

b) Eskaintzen zaizkien aukerei buruzko aholkuak ematea ikasleei, enpleguaren egoerari eta aurreikuspeni buruzko informazioa kontuan hartuta. Horri dagokionez, ikastolak harremanak izango ditu bere inguruneke Erakunde eta enpresa publiko eta pribatuekin.

**69. artikulua.— Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonalerako eskubidea.**

1. Ikasleek eskubidea dute euren osotasun fisikoa eta morala errespetatzea, baita euren nortasun eta duintasun pertsonala ere, eta ez zaie inoiz tratu iraingarri edo laidogarririk emango. Era berean, zeinahi eraso fisiko edo moralen aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute.

2. Ikasleei jokabideren bat zuzendu behar zaienean, arbitrariotasunik gabeko neurrien bidez zuzenduko zaie, eta titulu honetan ezarritako berme formalen arabera betiere. Era berean, ikasleei ezin izango zaie sekula zigor fisiko edo moralik ezarri.

3. Ikasleen jarduera akademikoa segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egin beharko da.

4. Osotasun fisiko eta moralerako eskubideak berekin dakar ikaslea zaindu eta jagotea espazio guztietan eta hura ikastolan dagoen bitartean, bai eta ikastolarekin egiten diren eskolaz kanpoko jardueretan eta jarduera osagarrietan ere. Arreta berezia merezi du patioak zaintzeak, zeinetan ikasle bakoitzak erreferentzia gisa tutorea hartuko baitu eskubideak kaltetzen dizkioten egitateak hari salatzeko. Tutorea ez badago, erreferenteak izango dira Lehen Hezkuntzan aste bakoitzerako esleitutako ziklo bakoitzaren arduradunak, zeinak behar bezala argitaratuko baitira, eta DBHko patioa zaintzeko eguneroko arduradunak.

Eskolaz kanpoko jardueren edo jarduera osagarrien kasuan, taldeko begiraleak edo arduradunak jasoko du ikaslearen salaketa. Edozelan ere, gertatutakoa ikaslearen tutoreari jakinaraziko zaiola bermatuko da, eta, tutorearen bitartez, haren gurasoei edo legezko ordezkari.

5. Osotasun psikiko eta moralaren barruan, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea jasotzen da. Hori dela eta, debekatuta dago ikastolako ikasleei edo haien familiei buruzko edozein irudi edo informazio lortzea eta zabaltzea, edozein bitarteko elektronikoz edo eskuz, eskola-esparru osoan edo ikastolarekin zerikusia duen edozein jarduera — autobusak, eskolaz kanpoko jarduerak edo jarduera osagarriak — gauzatzean, horretarako gurasoek edo legezko ordezkariak baimenik eman gabe. Ondorioz, guztiz debekatuta dago ikastolako gela eta esparru itxietan grabatzeko eta telefonia mugikorreko aparatuak erabiltzea, eta ikastolako patioetara eta aisialdian soilik erabil daitezke, lehen adierazitako helburuetarako izan ezik.

6. Artezkaritza-kontseiluak, kontseilu pedagogikoak, zuzendari pedagogikoak, etapetako arduradunak, irakasleek eta gainerako langileek berdinen arteko tratu txarrak desagerrarazten lagundu beharko dute, ezarritako prozedurei jarraituz, eta zuzendari nagusiari jakinarazi beharko diote hautemandako edozein zantzu, hezkuntza-administrazioari helaraz diezaion.

7. Eskola-eremuan ezin izango da inola ere tabakorik, alkoholik edo bestelako drogarik eduki edo kontsumitu.

**70. artikulua.— Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.**

1. Ikasleek eskubidea dute euren kontzientzia-askatasuna eta sinesmen erlijioso, moral eta ideologikoak errespetatu daitezkeen.
2. Eskubide horren egikaritzea honako hauen bidez bermatuko da:
  - a) Ikastolaren hezkuntza-proiektuaren funtsezko irizpideen arabera irakastea irakaskuntza, adierazpen-askatasuna edo gure ordenamendu juridikoan aitortutako beste edozein eskubide errespetatuz. Era berean, bermatuko du ematen den irakaskuntzak ez duela inolako manipulazio ideologikorik izango.
  - b) Ikasleen gaitasun kritikoa sustatzea.
  - c) Ikastolaren hezkuntza-proiektuari, misioari eta orientazio konfesionalari buruzko informazioa ematea, matrikulatu aurretik.

**71. artikulua.— Ikastolan batzartzeko eskubidea.**

1. Ikasleak ikastolan batzartu ahal izango dira eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo prestakuntza xede duten jarduerak gauzatzeko ere, ikastolako zuzendari pedagogikoari idatziz eskatu ondoren; azken batean, zuzendari horrek emango du bilera egiteko baimena.
2. Bilera eskatzeko prozedura honela arautuko da:
  - a) Ikasleek idatzizko eskaera egingo diote ikastolako zuzendari pedagogikoari, eta hark emango du, azken batean, bilera egiteko baimena.
  - b) Ikastolako zuzendaritza pedagogikoak erabakiko ditu bilera horretarako erabili ahal izango dituzten espazioak, jardueraren izaera, kideen kopurua eta espazioen eta bitarteko teknikoaren eta giza baliabideen eskuragarritasuna kontuan hartuta.
  - c) Bilera-ordua eskola-orduetatik kanpo izango da, ikastolako zuzendari pedagogikoak salbuespenez baimendutako bileren kasuan izan ezik.
  - d) Bilera horietara ezin izango da ikastolatik kanpoko inor joan, ikastolako zuzendari pedagogikoak alde aurretik baimenik eman ezean.
5. Erregelamendu honetan ezartzen diren baldintzetan, Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera ikasleek eskolara joateari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira joko portaera desegokitzat, kontraktatzat edo elkarbizitzari kalte larria eragiten dion portaeratzat, eta ez dira neurri zuzentzaileen xede izango batzartzeko eskubidea egikaritzearen ondorioz hartu badira eta zuzendaritza-taldeari gutxienez hogeita lau ordu lehenago jakinarazi bazaizkio.

**72. artikulua.— Ikastolako adierazpen-askatasunerako eskubidea.**

1. Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, bai euren iritziak askatasunez, banaka eta taldean, adierazi ahal izateko, eta bai iritziak xede horretarako gaitutako espazioetan eta denboretan azaltzeko.
2. Eskubide horren egikaritzea printzipio hauei lotuko zaie:
  - a) Errespetua erakustea ikastolari, instituzio gisa, eta ikastola osatzen duten kide guzti-guztiei.
  - b) Adierazpen-askatasuna egikaritzeko gaitutako espazioak eta denborak bakarrik erabiltzea.
  - c) Alderdi politikoaren edo antzeko elkartearen propaganda ez zabaltzea, eta, une oro, iraingarriak izan daitezkeen informazioak edo besteen eskubideen aurka jo dezaketen informazioak saihestea.
  - d) Une oro errespetatzea irakaskuntzako eta irakaskuntzaz kanpoko jardueren barne-funtzionamendua eta garapena.
3. Ikasleek, adin-nagusitasunera iritsi ez badira, gurasoen edo legezko ordezkarien idatzizko baimena izan beharko dute, noiz eta artikulua honetan eta aurrekoan jasotako eskubideak egikaritzeko eskola-

esparrutik irten behar dutenean. Baimen horretan adierazi beharko da zer ordu eskatzen duten ikastolatik irteteko, betiere sor litezkeen erantzukizun zibilak zehazteko, salbu eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntzetako ikasleen kasuan, kasu horretan gurasoek edo legezko ordezkariak baimen orokorra eman baitezakete, idazki baten bidez.

4. Adierazpen-askatasuna egikaritzeak geldialdi bat egitea badakar, kasu horretarako prozedura erregelamendu honen 76. artikuluan jasotzen da.

### **73. artikulua.— *Ikasleek elkartzeko duten eskubidea.***

1. Ikasleek eskubidea dute bai haiek elkartzeko eta bai elkarteak, federazioak nahiz konfederazioak sortzeko, betiere indarrean dagoen legerian oro har xedatutakoarekin bat.

2. Elkarteak bi motatakoak izan daitezke: legez eraturakoak eta ikastolan bertan sortutakoak. Elkarte bat sortzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Elkartearen izena.
- b) Elkartearen xedea.
- c) Elkartearen estatutuen kopia.
- d) Elkartearen sortzaileen izenak.
- e) Elkartea osatzen dutenen zerrenda.
- f) Elkartearen ordezkariaren izena.
- g) Kide bakoitzak gurasoetako baten edo legezko tutorearen baimen espresua beharko du.

3. Honako hauek izango dira elkarte horien eginkizunak eta eskubideak:

- a) Ekimenak izapidetzea eta sortzea ikastolako eta ikasleen ongizatea bultzatzeko.
- b) Ekimenak izapidetzea eta sortzea irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko.
- c) Hezkuntzari buruzko informazioak ezagutzera ematea, horretarako adosten diren bitartekoak erabiliaz.
- d) Hezkuntzarekin lotuta dauden edukiak dituzten bilerak egitea.
- e) Legeak baimentzen duen beste edozein.

4. Elkarte horiek egiten dituzten bilerek ezin izango dute ikastolaren funtzionamendu arrunta oztopatu; bilerok Bigarren Hezkuntzako etapako arduradunari jakinarazi beharko zaizkio, arduradun horrek baimena eman ahal dezan bilerok egiteko ordurako eta lekurako. Era berean, bileran arduradun batek egon beharko du, eta bileraren helburua zein den ere zehaztu beharko da.

5. Zuzendaritza-taldeak lokal egokiak jarriko ditu legez eraturako ikasle-elkarteen berezko jardueretarako, azpiegiturak ezarritako mugetaraino, betiere horrek jarduera akademikoa aldatzen ez badu. Zuzendaritza-taldeak ahal den neurrian ziurtatuko du lagatako lokalek beharizanak betetzen dituztela eta lokalok behar bezala erabiltzen direla, bai elkarten erabilera iraunkorrerako diren lokalak, bai noizbehinka erabil daitezkeen lokalak.

6. Zuzendaritza-taldeak zainduko du lagatako lokalak behar den moduan erabiltzen direla, eta egiaztatuko du bilera eskatzeko helburuak eta bileraren garapena bat datozela.

### **74. artikulua.— *Parte hartzeko eskubidea.***

1. Ikasleek ikastolako funtzionamenduan eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden arauetan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. Eskubide honen garapena bermatzeko, ikastolak partaidetza-foro batzuk aurreikusi ditu, honako hauek:

- a) Kontseilu pedagogikoa. Ikasleek euren ordezkarien bidez hartzen dute parte.

b) Aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera ikasleek eurek sortutako elkarteen bidez.

c) Ikastolak sor dezakeen eta ikasleen ordezkariak jasotzen duen edozein batzorderen bidez.

3. Bigarren Hezkuntzan, ikasleek ikastolako bizitzan aktiboki parte hartzeko aukera izan dezaten, gela bakoitzean eskuorde bat eta ordezkari bat egongo dira, bozketan gehiengo osoz aukeratuak. Hautaketa hori ikasturte bakoitzaren hasieran egingo da.

### **75. artikulua.— Informazioerako eskubidea.**

1. Ikasleek eskubidea dute, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, euren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko.

2. Ikasleek eskubidea izango dute informazioa emateko, bai hezkuntzarekin zerikusia daukaten gaien inguruan, bai gizarte-, aisialdi-, kultura- eta kirol-gaien gainean.

3. Era bitan eman ahal izango da informazioa:

– Ikasgeletan, ahoz:

Tutoreari edo etapako arduradunari jakinarazi beharko zaio aldez aurretik zein den emango den informazioa, eta horiek baimena eman eta ordutegia zehaztuko dute.

– Iragarki-taulan:

Ezin izango da eduki politikoa daukan testurik jarri, ez eta besteen eskubideen kontra joan edo iraingarriak izan daitekeen informaziorik ere.

4. Kontseilu pedagogikoak arautuko du eskubide hau erabili ahal izango den modua, gunea eta lekua. Betiere, horrelakoetarako zehazten diren lekuetan eta guneeetan agerrarazten den informazio guztiak erotan beharko du erantzule den pertsonaren, instituzioaren, erakundearen, elkartearen edo taldearen identifikazio argi eta garbia. Ikasgelen barruan, eskola-jardueren euren gaineko informazioa baino ezin izango da egon.

5. Erantzule den taldearen edo pertsonaren izenarekin sinatuta agertu beharko dute informazio guztiak. Etapako arduradunak emango du baimena komunikazioa egiteko. Baimena dela eta, adostasunik izan ezean, zuzendari pedagogikoari helarazi beharko zaio idatziz eskaria.

### **76. artikulua.— Ikasleek grebarako duten eskubidea.**

1. Greba eskubidea aitortzen zaie ikasleei DBHko 3. mailatik gora.

2. Greba-prozesu bati ekin ahal izateko, ezinbesteko baldintzak izango dira honakook:

a) Grebarako deialdia orokorra izatea eta, ikasleentzat baino ez bada, zergatia akademikoa izatea.

b) Batzarra, grebarako deialdia baino hogeita lau ordu lehenago egingo da. Egun horretako ordutegia tutoretza-ordua duten egunetakoa izango da.

c) Ondorio horietarako, batzarraren bezperan edo egun berberean, klaseak hasi orduko, irakasleek jakin beharko dute batzarra egiteko asmorik dagoen ala ez.

d) Batzarra egin baino lehen, antolatzaileek, ikasleen eskuordeek eta zuzendaritza-taldeak bilera egingo dute, grebarako dauden zergatien gaineko informazioa emateko.

e) Taldez talde egingo dira batzarrak, eta ikasgela bakoitzean norbaitek grebarako dauden arazoien berri emango du (ikaslea izango da informazioa emango duena, dela antolatzaileetako bat, dela ikasleen eskuordeetako bat). Batzarrotan, tutoreak jardungo du moderatzaile zereginetan, baina ezin izango du eztabaidan parterik hartu, antolatzaile edo moderatzaile lanak baino ezin izango dituelako bete.

f) Ezkutuko bozketa erabiliaz eta tutorea bertan dela gauzatuko da bozketa, eta tutorea eta ikasleen eskuordea izango dira ikasgelako zenbaketa egiteko ardura edukiko dutenak. Ikasleen eskuordeek zuzendaritza-taldeari helaraziko dizkiote emaitzak, eta azken horrek, ikasleen eskuordeekin batera, guztira dauden botoen zenbaketa egingo du.

- g) Grebara irten ahal izateko, matrikulatuta dauden ikasleen gaineko “bai”ezkoen gehiengo osoa lortu beharko da.
- h) Greba ez da loteslea izango. Eskolak emango zaizkie hala nahi duten ikasleei, materialak aurrera egingo du eta aldez aurretik aurreikusita zeuden azterketak egin egingo dira.
- i) Falta bat ipiniko da greban emandako ordu bakoitzeko, baldin eta artikulua honetan adierazitako baldintzak betetzen ez badira.
- j) Greba egin nahi duen ikaslea ikastolatik irtengo da bozketetako emaitzen berri izandakoan, eta ezin izango da bertara itzuli greba-deialdian ezarritako denboran.

### **77. artikulua.— Aukera-berdintasunerako eskubidea.**

1. Ikasleek eskubidea dute aukera berdina izateko irakaskuntza-maila guztietara heltze aldera. Derrigorrezko mailen ostekoetan, behar besteko aprobetxamenduak edo ikasketetarako dituzten gaitasunek eratorritzen dituzten mugak besterik ez da izango.
2. Ikasleek eskubidea dute behar dituzten laguntzak jasotzeko gabezia eta desabantaila pertsonalak, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak konpentsatze aldera, batez ere hezkuntza-beharrizan bereziak badituzte, zeinek eragotzi edo zailtzen baitute hezkuntza-sisteman sartzea eta bertan irautea.
3. Honako hauek erabiliko dira aukera-berdintasuna sustatzeko:
  - a) Diskriminaziorik eza, honako arrazoi hauek direla eta: jaiotza, arraza, hizkuntza, sexua, gaitasun ekonomikoa, gizarte-maila, sinesmen politiko, moral edo erlijiosoak, desgaitasun fisikoak edo psikikoak, edo maila pertsonaleko edo gizarte-mailako beste edozein tasun edo inguruabar.
  - b) Neurri positiboak ezartzea, aukera-berdintasun benetako eta eraginkorra ziurtatzeko.
  - c) Integrazioarako hezkuntza-planak egitea eta hezkuntza-beharrizan bereziei erantzutea, ikastolaren beraren baliabideekin eta Hezkuntza Administrazioak eskura jartzen dizkionekin.
  - d) Ikaskuntzako helburuak, metodologiak eta jardura didaktikoak eta ebaluaziokoak egokitzeak neurriak hartuz, betiere haien hezkuntza-garapena errazteko eta haien gaitasun eta interesetara egokitzeak.
4. Ikastolak harremanak izango ditu beste zerbitzu publiko batzuekin —udalekoak, lurraldekoak eta autonomikoak—, betiere egoera soziokultural eta ekonomiko bereziki ahulean dauden ikasleen beharrezko erantzuteko.

### **78. artikulua.— Gizarte-babeserako eskubidea.**

1. Ikasleek eskubidea dute hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko, familia-ezbeharren edo istripuen kasuan.
2. Kasu horietan, derrigorrezko mailatan diharduten ikasleek eskubidea dute behar den laguntza jasotzeko euren eskola-errendimendua ziurtatze aldera; laguntza hori ikastolaren bidez, urrutiko oinarritzko hezkuntzako irakaskuntza-zentroen bidez, edo lurraldeko irakaskuntza-zentroen esku dauden baliabideen bidez —ospitaleko, etxez etxeko eta terapeutikako hezkuntza-arloko arretarako baliabideen bidez—.
3. Zuzendaritza-taldeak babes-neurriak hartuko ditu berdinen arteko tratu txarren kasuetan eta bereziki sexu-jazarpenen eta emakumeen aurkako eraso kasuetan, eta, beharrezkotzat jotzen badu, jazarleak irakaskuntza-zentroz aldatzea berehala proposa dezake, edo, jazarpenaren biktimek nahiago badute eta hala eskatzen badute, biktimek lekuz alda ditzake. Edozelan ere, jazarpenaren biktimek eskubidea izango dute behar duten laguntza psikologikoa jasotzeko.



**79. artikulua.— Ikastolan ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.**

1. Ikasle guztiek eskubide eta eginbeharra dute, haien adinak bide ematen dien neurrian, eurei eta hezkuntza-erkidegoko gainerako kideei indarreko ordenamendu juridikoan aitortzen zaizkien eskubideak, bai eta eskubide horiek egikaritzen eta errespetatzen prestatzea ere.

2. Euren eskumenen eremuaren barruan, artezkaritza-kontseiluak, kontseilu pedagogikoak, zuzendaritza-taldeak eta irakasleek bermatuko dute, titulu honetan aipatutako eskubide guztiak eta legeek nahiz nazioarteko tratatuek ikasleei aintzat hartzen dizkieten eskubide guztiak egikaritzeko aukera. Ikasle adingabeei dagokienez, bereziki babestuko dira Adingabearen Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak nahiz Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak aintzat ikasleei aitortzen dizkietenak, eta, oinarritzko printzipio gisa, ikasleen interes gorenari emango zaio lehentasuna aldi berean egon daitekeen beste edozein interes legitimoren aurrean.

3. Era berean, kontseilu pedagogikoak, klaustroak eta irakasleek zainduko dute eskubide horien egikaritzea lotuko zaiela legeek ezarritako mugei, eta arduratuko dira ikasleen arteko harremanetan gerta ez dadin ezein eratako diskriminazio-egoerarik, hain zuzen ere, honako hauek: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edota beste edozein tasun pertsonal, ekonomiko edo sozial.

## 2. ATALA

### IKASLEEN EGINBEHARRAK

**80. artikulua.— Printzipio orokorrak.**

Ikasleek eginbeharra dute hezkuntza-erkidegoko gainerako kideen eskubideei eta askatasunei zor zaien errespetua izateko. Eginbehar hori zehazteko, honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Hezkuntza-erkidegoko kide guztien kontzientzia-askatasuna errespetatzea, eta sinesmen ideologiko, erlijioso, moral eta etikoak, bai eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea ere.
- b) Hezkuntza-erkidegoko ezein kide ez diskriminatzea arrazoi hauek direla kausa: jaiotza, arraza, sexua, ideologia, hizkuntza, kultura, erlijioa, iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial.
- c) Ikastolaren hezkuntza-proiektua errespetatzea.
- d) Erregelamendu hau betetzea.
- e) Ikastolako ondasun higigarriak eta instalazioak errespetatzea eta behar den moduan erabiltzea.
- f) Modu eraginkorrean parte hartzea eta lankide izatea, hezkuntza-erkidegoko gainerako kideekin, irakaskuntzaren garapen hobearen, eskola-orientazioaren eta ikastolako elkarbizitzaren alde egitearren.
- g) Ikasle guztiek klasera joateko duten banakako eskubidea errespetatzea.

**81. artikulua.— Ikasleen eskola-eginbeharrak.**

Ikastea ikasleen oinarritzko eginbeharra da, eta harekin batera doaz haien gaitasun pertsonalak eta ematen dira ezagutzak aprobetxatzea, betiere garapen pertsonalik onena eta adimen- eta lanbide-prestakuntza egokia erdiesteko. Eginbehar orokor hori zehazteko, honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Klasera joatea, eskola-egutegian adostuta dauden jardueretan parte hartzea eta ezarritako ordutegiak errespetatzea.

b) Klasean irakaslearen azalpenei arreta ematea eta hark proposatzen dituen jarduera didaktikoak egitea. Horrezaz aparte, irakasleak klaseak emateko duen eskubidea errespetatu beharko dute.

c) Irakasleek, euren irakaskuntza-eginkizunak beteaz, agintzen dituzten lanak egitea.

d) Ikaskideek ikasteko duten eskubidearen egikaritzea errespetatzea.

### **82. artikulua.— *Ikasteko eginbeharra.***

1. Ikaslearen eginbeharra da bere gaitasun guztiak al bait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea, betiere, duintasunez bera bizitzeko, besteekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren konpetentziak lortzearen, eta behar adinako lana egingo du eta behar den interesaz; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

2. Ikasleek betebeharra dute azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, beraz, euren ahalegina eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuak, materialak nahiz tresnak besterik ez dituzte baliatuko.

### **83. artikulua.— *Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko eginbeharra.***

Ikasle guztiak hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, gogoz jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lantaldeetan lagunduz.

### **84. artikulua.— *Bertaratzeko eginbeharra.***

1. Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, garaiz eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

2. Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-faltatzat: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak; horretarako, ikastolan ezarritako arauen arabera onartzeko modukoa den justifikazioa aurkeztu beharra dago.

Justifikazio onargarriztat hartzen da gaixotasunaren edo kontsulta medikoaren edozein jakinarazpen, baldin eta DBHko eta Batxilergoko ikasleen azterketa-egunekin bat ez badator; kasu horretan, medikuaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Denbora luzez (astebetetik aurrera) ez bertaratuz gero, medikuaren egiaztagiria aurkeztu beharko da; bestela, Hezkuntza Ikuskatzailetzari ez-bertaratzearen berri emango zaio, eskola-absentismoaren jarraipena egiteko.

### **85. artikulua.— *Elkarbizitza errazteko eginbeharra.***

1. Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastolan eskola-elkarbizitza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritza eta orientazioak errespetatuz.

2. Horretarako, ikasleek erregelamendu honetan jasotako elkarbizitza-arauak jakin behar dituzte; irakasle eta hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte; portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteek euren eskubideak egikaritzeko dituzten eskubideak urratu gabe; sortzen diren gatazkak konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliko dituzte; ikaskideekiko jasankortasunez eta elkartasunez jokatu dute, eta hezkuntza-erkidegoko gainerako kideen eskubideen egikaritzea erraztuko dute.

3. Ikasleek lagundu behar dute elkarbizitzarentzat aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren portaeren neurri zuzentzaileak aplikatzeko, betiere zuzendari pedagogikoak edo, bestela, instrukzioaz arduratzen diren irakasleetatik edozeinek eskatzen dienean lekuko gisa deklaratu.

### **86. artikulua.— *Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko eginbeharra.***

1. Ikasleek hezkuntza-erkidegoko kide guztien kontzientzia-askatasuna, sinesmen erlijioso eta moralak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, honako hauek arrazoituz

hartuta inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal, ekonomiko edo sozial.

2. Ikasleek euren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte, ikaskideok ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean adierazpen-, batzartze- edo elkartze-eskubide indibidualak modu kolektiboan egikaritzeko.

3. Ikasleek ez dute ezein adierazpenik egingo hezkuntza-erkidegoko kide bakar bat ere gutxietsi, mehatxatu edo difamatzeko.

4. Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-bitartekorik erabili, salbu eta ikastolak programatutako jardueretan horrelako bitartekoak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango dute hezkuntza-erkidegoko inor grabatu hark nahi ez badu eta hartarako baimena esanbidez ematen ez badu.

### ***87. artikulua.— Eskola-arauak errespetatzeko eginbeharra.***

1. Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza-erkidegoko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideak ezagutzeaz gain, ikastolaren antolaketako, elkarbizitzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, erregelamendu honen xedapenak osorik betez, eta ikastolaren hezkuntza-proiektua errespetatuz.

2. Ikasleek bete beharko dituzte ikastolako gobernu-organoek euren eskumenen eremuan hartzen dituzten erabakiak, norberaren garbitasunari eta norberaren gauzak, jantziak, tresnak edo aparatu elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak barnean hartuta, eta era berean bete beharko dituzte atsedendietan eskola-esparrutik kanpo egin daitezkeen irteerei buruzko eta irteeretan erakusten duten portaerari buruzko erabakiak ere. Salbuespenez, eta ezinbesteko kasuetan, DBHko 3. eta 4. ikasturteetako ikasleak ere eskola-esparrutik irten ahal izango dira, betiere gurasoek edo legezko ordezkariak horretarako baimena ematen badute eta tutoreak horren berri duelarik.

3. Era berean, ikasleek jarraibide hauek bete beharko dituzte: irakasleek eta hezkuntzako laguntzaileek euren eskumenen eremuan ematen dituztenak, bai eta lege-araudiak ikastolako langile ez-irakasleek ematen dituzten jarraibideak lege-araudiak haiei ematen dizkien eginkizunetan dihardutela.

4. Ikasleek egin beharko dituzte ikastolak hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean ezartzen dizkien ekintzak.

### ***88. artikulua.— Instalazioak errespetatzeko eginbeharra.***

1. Ikasleek eginbeharra dute ikastolako ekipamendua eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko, betiere instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra haien izaeraren arabera eta haien xedetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakasleen edo langile ez-irakasleen jarraibideak betez. Ez dute inola ere ikastolako ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritako helburuak ez besteetarako, ez eta ikasleei dagokien ordutegitik kanpo ere.

2. Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastolan sartzen utziko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan. Ildo horretatik, legez eratuta izanik ikastolan ezarrita dauden ikasle-elkarteak ordezkatzeko dituzten pertsonak ez dira ikastolatik kanpoko pertsonatzat hartuko, betiere haiek ordezkari gisa identifikatzen dituen dokumentazioa baldin badute eta zuzendari nagusiari euren bisitaren berri eman badiote.

3. Ikasleek hezkuntza-erkidegoko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte, eta ikastolaren testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte.

### ***89. artikulua.— Klasera huts egitearen justifikazioa***

1. Arrazoiak direnak direla ere, egun jakin batzuetan ikasle gutxi batzuk baino joan ez arren, ikastolak eta irakasleek normaltasun osoz eman beharko dituzte klaseak.

2. Ikasleen gurasoek edo legezko ordezkariak justifikatu beharko dituzte, nor bere tutorearen aurrean, ikasleek klasera egiten dituzten hutsak eta tutorea izango da justifikaziook onartzen dituen.
3. Ikasleren batek behin eta berriro huts egiten badu klasera eta hutsegite horiek behin eta berriro eta edozelan justifikatuta badaude, tutoreak neurri zuzentzaileak hartzeko proposatu ahal izango dio kontseilu pedagogikoari, betiere justifikazio horien kontrol zorrotzagoa lortzeko; horrezaz gainera, Hezkuntzako Ikuskatzailetzari eta gizarte-zerbitzuei emango die arazo horren berri.
4. Klasera joateko eginbeharra bete ezean, falta izan daitekeen kasuetan bidezkoak diren diziplina-zehapenak sortuko dira, Elkarbizitza eta Diziplina Erregelamenduan ezartzen denaren arabera.
5. Ikasleen eskubidea eta eginbeharra da klasera joatea. Edozelan ere, ez dago borondatezko asistentzia-sistematik ezartzerik ikaslea matrikulatuta dagoen gaietarako.

## VI. TITULUA

### GURASOEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

#### **90. artikulua.— Gurasoen eskubideak.**

Gurasoek, ikasleen legezko ordezkariak diren aldetik eta ez bazkide gisa, eskubide hauek dituzte:

- a) Seme-alabek hezkuntza egokia jasotzekoa, une oro lege-araudian eta ikastolaren hezkuntza-proiektuan ezarritakoaren arabera.
- b) Ikastolan parte hartzeko ezarritako organo guztietako ordezkariak aukeratu eta aukeratuak izatekoa.
- c) Seme-alaben hezkuntza-prozesuari buruzko informazio zehatza jasotzekoa, gurasoek eurek edo legezko ordezkariak eurek eskatuta zein ikastolak berak eskatuta.
- d) Ezarritako bideei jarraituz, seme-alaben hezkuntza-proiektua hobetzeko egokitzat jotzen dituzten keak edota iradokizunak egitekoa.
- e) Ikastolako lokalak erabiltzekoa, aurretik eskaera eginda bilerak egiteko, betiere seme-alaben hezkuntza-prozesuetan laguntasuna eman eta hobetze aldera.
- f) Ikastolaren instalazioa erabiltzekoa, eskolaz kanpoko jarduerak burutze aldera, betiere zuzendaritza-taldeak onetsiak badira eta ikastolaren hezkuntza-lanari eragozpenik ez badie egiten.

#### **91. artikulua.— Gurasoen eginbeharrak.**

Gurasoek eginbehar hauek dituzte, ikasleen legezko ordezkariak diren aldetik eta ez bazkide gisa:

- a) Seme-alaben hezkuntza-prozesuan dagozkien erantzukizunak bereganatzekoa, eta prozesu hori hobetzeko parte-hartze handia izatekoa.
- b) Tutoreek eta ikastaldeko ordezkariak deitutako bileretara joatekoa, eta tutoreak bakoitzari deitutako elkarriketetara joatekoa.
- c) Ikastolako organoek seme-alabei buruz eskatutako beharrezko informazioa ematekoa, betiere informazio horrek hezkuntza-prozesuan eragina izan badezake eta legean une oro ezarritakoa errespetatuz.
- d) Seme-alabei beharrezko baliabideak ematekoa, eskolako eta eskolaz kanpoko jarduerak egite aldera.

- e) Seme-alaben garbitasuna, higiene eta osasuneko gutxieneko baldintzak zaindu eta mantentzekoa, betiere kutsatzea galarazteko edo gainerako ikasleei kalterik ez eragiteko, baina inor baztertu gabe edo hezkuntza-eskubideari kalterik egin gabe.
- f) Ikastolari laguntzekoa, betiere seme-alabei materiala, altzariak eta instalazioak errespetatzen dituzten irakaste aldera.
- g) Seme-alabei errespetua irakastekoa, jarreraren oinarritzko araua gisa, eta une oro ikastolako langileekiko errespetua erakustekoa.
- h) Seme-alaben asistentzia edo puntualtasun-eza idatziz, zentzuz eta egia esanaz justifikatzekoa.
- i) Ikastolan parte hartzeko dauden organoetan eta kide anitzeko organoetan beste guraso eta legezko ordezkarien ordezkari gisa aukeratuak izateko onartzekoa.
- j) Bisita orduak eta tokiak errespetatzekoa, eta galarazita dago eskola-moduluetan sartzea eskola-orduetan eta eskolaz kanpoko orduetan.
- k) Erregelamendu hau, eta ikastolako batzar orokorrak, artezkaritza-kontseiluak eta zuzendaritza-taldeak hartutako erabaki guztiak errespetatzekoa.
- l) Ikastolako langileekin zein kudeaketa-organoetako kideekin une oro errespetuz eta begirunez aritzekoa. Errespetua eta begirunea behin eta berriro galduz gero, artezkaritza-kontseiluak hartu beharreko neurriak ebatziko ditu.

## VII. TITULUA

### ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

#### ***92. artikulua.— Administrazio eta zerbitzuetako langileen eskubideak.***

Administrazio eta zerbitzuetako langileek, ikastolako langileen barrukoak diren gisa, eskubide hauek izango dituzte:

- a) Euren eginkizunak betetzekoa, egokien irizten dieten metodoak erabiliz, betiere ezarritako orientazio, prozedura eta planen barruan.
- b) Ikastolako bizimoduari, jarduerari eta elkarbizitzari eragiten dieten arlo guztietan esku hartzekoa, arauzko bideetatik.
- c) Ikastolaren bitartekoak eta zerbitzuak erabiltzekoa, erabilerari buruzko arauen arabera.
- d) Ikastolaren gaien gaineko informazioa aldi-aldi jasotzekoa.
- e) Lanbide-trebakuntza iraunkorra jasotzekoa.
- f) Ikastolaren gobernu- eta ordezkaritza-organoetan parte hartzekoa, ezarritako hautaketa-prozeduren arabera.
- g) Lehentasunak, esperientziak eta gaitasunak azaltzekoa, beste lanpostu batzuk atxikitze aldera, betiere kasuan-kasuan eskatzen diren profila eta baldintzak betetzen badituzte.
- h) Euren atazak betetzeko bitarteko egokiak eta beharrezko informazioa edukitzekoa, eta lanpostuari esleituriko eginkizunak ezagutzekoa.
- i) Duintasun profesionala eta pertsonala guztiz errespetatzekoa, euren eginkizunak betetzean.
- j) Indarrean dagoen legerian jasotako banako zein taldeko beste edozein eskubide.

### **93. artikulua.— Administrazio eta zerbitzuetako langileen eginbeharrak**

Administrazio eta zerbitzuetako langileek, ikastolako langileen barrukoak diren gisa, eginbehar hauek dituzte:

- a) Euren erantzukizunpeko eginkizunak eta atazak eta zuzendaritza-taldeak agindutakoak behar den moduan betetzekoa.
- b) Koordinazio-bileretara joatekoa, baita haiek kide diren organoen bileretara joatekoa ere.
- c) Koordinazio-bileretara zein haiek parte hartzen duten organoen bileretara huts egitea justifikatzekoa, bilera deitu duenaren aurrean.
- d) Artezkaritza-kontseiluak, zuzendaritza-taldeak eta kontseilu pedagogikoak euren eskumeneko gaietan hartzen dituzten erabakiak betetzekoa, bai eta dokumentu estrategikoetatik (estatutuak, ICP, plan estrategikoa) eta kudeaketa-dokumentuetatik (kudeaketa-plana) eratorritako jarraibideak betetzekoa ere.
- e) Lanpostura garaiz joatekoa.
- f) Zuzendaritza-taldeari edozein absentziaren berri ematekoa, eta, ahal dela, beti haren ordezkari bat ipintzekoa.
- g) Antzeko eginkizuna duten beste pertsona batzuen absentziak bete beharko dituzte, betiere horretarako prestakuntza badute.
- h) Ematen zaien materiala zaintzekoa.
- i) Egunean edukitzekoa, betetzen dituzten eginkizun eta atazei dagokien dokumentazioa.
- j) Ikastolako gainerako langileei laguntzekoa eta partaidetza handia izatekoa, betiere lanbide-jarduketan etengabeko hobekuntza aktiboki bilatuz.
- k) Laguntza ematekoa, elkarbizitza onari eutsi eta ikasleen prestakuntzan laguntze aldera trebatzeko lagungarria izatea euren erantzukizun-arloan.
- l) Gizalegezko elkarbizitza, sinesmen moralak eta erlijiosoak eta hezkuntza-erkidegoko kideen duintasun pertsonala errespetatzekoa.
- m) Ikastolaren funtzionamendu egokirako ezarritako xedapenak eta arauak betetzekoa.
- n) Euren lanbidearen ondoriozko printzipio etikoak betetzekoa.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

1. Erregelamendu honetan xedatu denaren ondorioetarako, aldi baterako lan-kontratua duten langileak lan-kontratu mugagabea duten langileen parekotzat hartuko dira.
2. Artezkaritza-kontseiluari ahalmena ematen zaio erregelamendu hau garatzeko, lege-aurreikuspenen arabera.
3. Era berean, artezkaritza-kontseiluari ahalmena ematen zaio ikastolaren Elkarbizitza eta Diziiplina Erregelamendua onesteko eta aldatzeko.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Artezkaritza-kontseiluak neurriak implementatuko ditu Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko; era berean, organo horrexek ezarritako dituzten

beharrezko bitartekoak bere informazio-sistemetan bilduta eta tratatuta dauden datuen segurtasuna, eskuragarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko.

## AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau indarrean jarriko da kooperatibisten batzar orokorrak onetsitakoan.